

Herririk Herri |4|

Ezker abertzaleak elkarlanerako deia
luzatu deutso Alri Abadiñon

Ekonomia |10|

Laydeko beharginek greba egin eben
atzo 55 kaleratze salatze

Erreportajea |16-17|

Durangaldeko gaztetxe eta gazte
asanbladek Elorrion bat egingo dabe



Gaur iluntzean inauguratuko dabe Haurtzaindegia

Mañaria • Orain dela hilabete
martxan jarritako haurtzaindegia
gaur iluntzean inauguratuko
dabe ofizialki. Oraingo, hiru
umek emon dabe izena, baina
datorren ikasturtean gehiago
apuntatzea itxaroten dabe. **3**

'Poema baten irakurketa Euskal Herrian' film laburra

KULTURA • Topagunea euskara
elkarleen federazioak antolatzen
dauen Film Laburren Zirkuituaren
barruan, apirilaren 2an Durangon
emongo daben 'Poema' lanaz egin
deuskue berba sortzaileek. **13**

Iurretako Hiri Frogak goi mailako atletak batuko ditu etzi

KIROLA • Reyes Estébez, Marta
Domínguez... Kalitateko proba izan-
go da aurtengoa be. Horreez gaine-
ra, herri-lasterketak be egingo ditue
parte-hartze handiaz. **24**

ORDU ALDAKETAI

Igande
goizaldean,
02:00etan
03:00ak
izango dira



•Elorrio

Alde Zaharreko trafiko
ordenazino barria indarrean **4**

•Iurreta

Fundigel uda aurretik lekuz
aldatzea gura dau Udalak **4**

•Atxondo

Saneamendu sareko lanak urtea
amaitu orduko amaitzekotan **7**

Bonbardaketak gogoan Durangon eta Elorrion

1937ko martxoaren 31ko
bonbardaketak gogoratuko
ditue Durangaldean.

Durangon, ohiko ekitaldiez
gainera, umek puzzle
erraldoia osatuko dabe.

Elorrion lehenengoz
egingo ditue bonbardaketa
gogoratzeko ekitaldiak. **2**



Dimarock Landakon antolatuko dabe 'Dur&Go' izenagaz

Durango • Dimarock nazino
arteko eskalada jaialdiak izena eta
kokalekua aldatu ditu. Dur&Go
izenagaz, Durangoko Landako
Gunean antolatuko dabe goi
mailako eskalatazaileak batzen

dituen topaketa. Irailaren 7tik 13a
bitartean, Dur&Gok bi gune
izango ditu: erakustazokan
boulderra jarriko dabe, eta
ondoko plazan, barriz, 16
metroko rokodromoa. **23**

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA



Oroimen ekitaldia eratu dabe aurten be Durangoko Andra Mariko elizpean Gerediaga, Barbaro eta Kriskitinek. Kepa Aginako

Ahaztu ezin diren egun ilunak ekarriko ditue gogora egunotan

Bai Durangon bai Elorrion, 1937an jasandako bonbardaketak hartuko ditue gogoan martxoaren 31n

Martxoaren 31: Durango zein durangarrentzat ahanzturan galdu ezin leikeen egun beltza. 72 urte dira 1936ko martxoaren 31n, Italiako Aviazione Legionariako hegazkinak uria bonbardatu ebal, eta hori gogoan hartuz hainbat ekitaldi eratu dira datozen egunotarako. Faxisten hegazkinen jomuga, ordea, ez zen Durango bakarrik. Egun eta ordu berean bonbardatu eben Elorrion, eta aurten gomuta ekitaldiak antolatu ditue.

Martxoaren 31n eta hurrengo egunetan izandako bonbardaketetan 336 pertsona hil ziren Durangon

Durangon 08:30 inguruan entzun zitueen lehen bonbahotsak. Hegaldi bakarrean, lau tona leherkari jaurti zitueen. Airealarmek barrero jo eben arratsaldean; baita Elorrion be. Soriatik zetozen zortzi abioikerasotu eben Durango, eta beste hiruk Elorrion. Arratsalde haretan, 7.840 kilo lehergailu jaurti zitueen. Martxoaren 31 haren eta hurrengo egunetako bonbardaketen ondorioz, 336 pertsona hil ziren Durangon, eta zenbaezinak izan ziren kalte materialak. Elorrion 10 lagun hil ziren gitxienez (elizako hildakoen libu-

ruan ageri direnak). Seguruenik gehiago be hilko ziren nahiz erregratuta egon ez. Bonbardaketak Berriotxo kalea eta elizako atzeko aldea kaltetu zituen gehien.

Durangon "udalerraren memoria historikoa berreskuratu" guran prestatutako ekitaldi sorta aurkeztu dau Udalak. Bonbardaketan hildako gizon-emakumeak gogoratuz 'Martxoak 31: Bakea eta Adiskidetzea' idatziko dabe lorekin domekan, eta astelehenean, barriz, puzzle erraldoia egingo dau hainbat eskolaumek, "gertakari hareek hurreratu" guran.

Omenaldia hilerrian

Martxoaren 31n, Gerra Zibilaren biktimei egingo deutsee omenaldia hilerrian. Ekitaldi hori "gaitzetsi" dau Durango 1936 kultur elkarteak. "Ulertezina" da, dinoe, "askatasunaren alde borrokatzeagaitik

Martxoaren 31n Udalak hilerrian antolatu dauen ekitaldia "gaitzetsi" dau Durango 1936 elkarteak

fusilatu eta desagertarazotakoak eta horreek erail zitueen faxistak batera omentzea"; "berrogeitaka urtetan faxismoa jartzearen hildakoak era eskusiboan omendu diren tokian", gaineratu dabe.

Martxoaren 31n Andra Maria elizpean Gerediaga, Barbaro eta Kriskitinek eratutako oroimen ekitaldian parte hartuko dau Durango 1936k. Egunean bertan argazki erakusketa be egongo da, egun osoz, Andra Marian; bezperan, *Los niños de Rusia* film dokumentala eskainiko dabe, gerrako ume hareek gogoratuz. Euskal Herritik Errusiara joan behar izan eben umeen bizipenak erakutsiko dira.

Omenaldia Elorrion

Elorrion be lehenengoz gomuta ekitaldiak antolatu ditue Udalak, Gerediaga elkarteak eta beste hain-

bat elkartek elkarlanean. Domekan omenaldi instituzionala egingo jake sasoi ha bizi izan ebenei, Udaletxeko udalbatzar aretoan. Helburua "egun beltz ha gogoratzeta da, eta haren bueltan alkatzea", dino Niko Moreno alkateak. "Azkenean gura dabena erreko-

Etzi Elorrion izango den omenaldi instituzionalera joateko gonbita egin dabe

nozimendua da, eskerrik asko bat", azaldu dau Jon Irazabal Gerediagako kideak. Herri osoari gon-

DURANGO

Martxoak 29

12:00: Bonbardaketetan hildakoen alde lorak jartzea, Andra Mari elizpean.

Martxoak 30

10:00: Puzzle erraldoia bonbardaketak oroitzeko, Andra Mari elizpean.

19:00: 'Los niños de Rusia' (Jaime Camino) film dokumentala, San Agustinen.

Martxoak 31

09:00-21:00: Argazki erakusketa, Andra Marin.

12:00: Gerra Zibilaren biktimei omenaldia, hilerrian (autobusa 11:30ean, Komentu kaletik).

20:00: Oroimen ekitaldia, Andra Marin.

ELORRIO

Martxoaren 27tik apirilaren 6ra

Erakusketa Iturri Jauregian: argazkiak, Intxortako frontearen maketa...

Martxoak 27

19:30: *Bonbardaketa Elorrion eta Durangaldea gerra zibilean* hitzaldia Iturrin.

Martxoak 29

12:30: Bilkura aretoan, omenaldi instituzionala.

Apirilak 3

19:30: *Industrias movilizadas y fabricación de armamento en Durangaldea durante la guerra civil* hitzaldia Iturrin.

Memoria historiko antifaxistaren alde

1937ko martxoaren 31n Durangok jasandako bonbardaketa gogoratuz, elkarretaratzea deitu dau Durangoko Sare Antifaxistak. Martxoaren 28an Andra Maria elizpean egin dabe hitzordua, 12:30ean.

Sare antifaxistaren ustez, "denpora igaro da, baina garaileek, euren oinordekoek eta egungo konplizeek ahanztura eta historiaren manipulazioagaz darraie". Frankismoak hildakoen oroimena ez dela "loreekin eta adierazpen hutsalekin gorpuzten". Dinoenez, "zau-

riak ezin dira itxi biktime eta borrarroak maila berean jarriz, eta Franco eta bere kideen erantzukizunak ahaztu eta estaliz".

Besteak beste, Ahaztuak 1936-1977, Iratzarri, Gazte Komunisten Batasuna, CNT-Durangaldea, Durangaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Koordinadora eta Aralarren babes daukan sare antifaxistak, "egia bilatuko dauen eta behingoz justizia egiten saiatuko den" oroimen historiko antifaxistaren alde egin gura dau. "Ozen entzun gura dogu kapitalistak izan zirela Franco eta inguruko jarduna sustatu ebena. Ondoren, diktadura baliabotzean demokrazia faltsurako igarobidea planifikatu eta Juan Carlos erregea koroatu eben". Faxismoak oraindino "inpunitate osoz" diharduela salatu dabe, "estatuaren bitarteko den laguntzagaz".



DURANGO

Hasi dira artxibo historikoa lekuz aldatzeko lanak

Kalebarriko liburutegi barrian izango dau lekua

Asteon hasi ditue Durangoko artxi- bo historikoaren lekualdatze lanak. Arte eta Historia Museoan batu- tako agiriok epe laburrean Kale- barriko liburutegia izango dabe gordeleku barri. Lan “delikatu” eta “konplikatuok” 20-25 egun irau- ngo dabe, eta, behin amaituta, toki- ko fondoak kontsultatzeko aukera be egongo da; Durangon edo durangarrek argitaratutako argital- penak batzen ditu fondoak. Aurre- rago, argazki fondoa be eroan gura leukie bertara. Kontsultatarako gunea be egokituko dabe.

Argazki fondo horri be heldu gura deusie abenduan hasi eben udal artxiboa osatzen daben jato-

Abenduan hasitako lanen baitan 1550etik 1820ra arteko akta-liburuak eta Erdi Aroko agiriak digitalizatu ditue

Hasi ditue agiri guztiak Interneten eskegitzeko lanak be, azken helburua horixe dau-eta Durangoko Udalak

rrizko agiriaren digitalizazio lanen barruan: 1550etik 1820 arteko akta-liburuak eta Erdi Aroko agiriak digitalizatu ditue. Katalogatu be egin ditue, kontsulta errazte- ko datu-basea sortuz.

Hirugarren fasean dihardue 1821etik 1879 arteko akta-agiriak digitalizatuko ditue oraintsu hasi den 3. fasean; eliza, ermita eta kofradietako fabrika-liburuekin hasi gura dabe 2010ean, Aitziber Irigoras alkatearen berbetan. “Agiri guztiak Interneten eskegitzeko lanean be hasita gagoz: hori da azken helburua. Ondare historikoa zaintzeagaz batera zabaltzea be bada helburua. Urian den artxibo historiko bakarrenetakoa da, eta mimo bereziz zaintzera behartu- ta gagoz baina mundura zabaltze- ra be bai”, nabarmendu dau.

Kilometro inguru apalategik osatzen dabe artxiboa: 1550etik aurrerako akta-liburuak, XVI. men- deko kontu-liburuak, XIV. mende- tik aurrerako Erdi Aroko agiriak, fabrika-liburuak eta udal-gutu- neria. Artxibo historikoak 8.839 agiri batzen ditu: 6.000 bat udal- akta dira; gainerakoak Erdi Aroko agiri eta paper-sortak. Udal artxi- bo osoa gordeko dabe Kaleba- rrian. ■ A.B.

GARAI

Udabarriko kontzertua bihar San Migel elizan

Iluntzeko 20:00etan hasiko da jaialdia

Abesbatzek udabarriko kontzertua eskainiko dabe zapatuan Garain, San Migel elizan. Iluntzeko 20:00etan hasiko da jaialdia, eta bertan Bizkaitik etorritako hiru talde izango dira kantari.

XXIX. BBK Abesbatzen Kontzertuen barruan sartzen da bihar- ko ikuskizuna. BBK Fundazioak eta Bizkaiko Abesbatzen Federa- zinoak antolatzen daben ekimen honetan, hainbat herritan kontzer- tuak izaten dira udabarrian zehar, eta horreetako bat da Garaikoa.

Erandioko Altzaga abesbatza, Zierbenako Berdantza abesbatza eta Gorlizko Lirain Txiki abesba- tza izango dira biharko parte-har-

tzaileak; hirurak be esperientzia handiko taldeak dira, kide ugari ditueenak, gainera.

Lirain Txiki 12 neskatilak osa- tzen dabe, eta Lirain taldearen barnean dagoz. Gorlizko korua 1992an sortu zen. Altzaga Abes- batza 1997an jaiou zen, eta 40 ema- kume dira bertako abeslari. Zier- benako Berdantza be 10 urtetik gorako esperientzia dauka. ■ M.O.

Erandioko Altzaga, Zierbenako Berdantza eta Gorlizko Lirain Txiki abesbatzek jardungo dabe bihar Garain kantari

MAÑARIA



Gela nagusia, sikomotrizitate gela, lotarako gunea eta sukaldea ditue, besteak beste. I.E.

Haurtzaindegi barria gaur iluntzean inauguratuko dabe

Orain hilabetetik hona Mañariko hiru ume batzen dira haurtzaindegian

Irailerako zegoen aurreikusita haurtzaindegi zerbitzua mar- txan ipintzea, eta orain hilabe- tezabaldu daben arte amama-aiti- ten laguntzagaz konpondu behar izan dabe hiru umeon gurasoek. Orain hilabetetik hona, gurasoak lanean dagozen bitartean hezitzaile bat arduratzen da hiru umeak zaintzeaz, espazio aprobean.

Txikien dantza emanaldia eta luntxa antolatu ditue gaurko inaugurazinarako

Hiru urte egiteko dagozen umeak dira ikasturte honetan haurtzaindegiak hartuko ditue- nak. Maiatzeko aurrematrikula- zinoan, baina, datorren ikastur- terako ume gehiagok izena emo- tea itxaroten dabe; bikote gazte asko bizi delako herrian eta beha- rrizana badagoelako.

Haurreskolen Partzuergoak zehazten dituen kuotak ordain- du ahal izateko zailtasunak ditueen gurasoak aitatu deus- kuez asteon haurtzaindegiko atean topatu doguzen amek: Haurtzaindegi “luxuzkoa” dela- ko Udalari eskerrak emon ondo- ren, “matrikula ordaindu ezin daben gurasoendako diru-lagun- tzaren bat bideratzeko” eskatu gura izan deusie Udalari.

Udaleko eta Haurreskolen Partzuergoko ordezkariak izango dira gaurko inaugurazino ofizia- lean, eta ume txikiak daukiezen gurasoak be gonbidatu ditue eki- taldira. Txikien taldearen dantza emonaldiaren eta alkatearen ber- ben ondoren luntxa eskainiko da.

Hiru urteak bete eta haur- tzaindegi itzi behar daben hau- rrak herritik kanpora joan behar izan ez daitezten, Mañariko esko- laurrea berreskuratzeko helburua

be badaukie gurasoek. Haurtzain- degia “lehenengo pausoa” dela baina helburua 6 eta 7 urtekoen- dako eskolaurrea lortu gura dabe- la dinoe gurasoek. Sinadurak batu eta eskaria igorri ei dabe, eta izur- tzarrei be zabaldu gura izan deusie deialdia, izurtzarrentzat be intereseko izan leitekeelakoan eskolaurrea berreskuratzeko. ■ I.E.

Datorren ikasturterako aurrematrikulazinoan haur gehiagok izena emotea itxaroten dabela dinoe

Haurtzaindegi “luxuzkoa” dela eta 6tik 7 urtera artekoendako eskola dabela helburu dinoe gurasoek

UNDARRI BIKE
Bizikleta salmenta eta konponketa.
Bidebarrieta, 5 - bajo
48115 TURRETA
94 681 78 08
undarribike@undarribike.com
www.undarribike.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik
clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

ELORRIO

Alde Zaharreko trafiko-ordenazino barria indarrean apiriletik aurrera

Zamalanetarako Erreka eta Errebonbillo kaletik sartu ahalko dabe beharginek, eta San Piotik irten



Datorren eguaztenean, apirilaren 1ean, ipiniko dabe indarren Alde Zaharreko trafikoaren ordenazino barria.

Datorren eguaztenean, apirilaren hasieragaz batera, ipiniko dabe indarrean Alde Zaharreko trafikoaren ordenazino barria. Horretara, herrietako alde zaharrek izan ohi daberen ikuskera hobeto lotuko jakola uste dabe udal arduradunek: “Oinezkoei bideratutako gune komertzial legez hartzen dira alde zaharrak. Oinezkoen ikuspegi hori indartu egiten da arratsaldetan. Ildo horretatik, ibilgailu zirkulazioari espazioa hartu gura izan deutsagu”, adierazten dau Niko Moreno alkateak.

Errebonbillo kaleak noranzko bakarria izango dau: sarrerakoa; Irteera, Montorra kaletik

San Pioko aparkalekuak kendu egingo ditue; Errebonbillo, barriz, barriak egingo ditue

Eguaztenez aurrera zamalanetarako sarrera Erreka eta Errebonbillo kaleak izango dira. Irten, barriz, San Pio kaletik bakarrik egingo ahalko da. Orain San Pio sarrera puntua da, baina eguaztenez aurrera justu kontrakora bideratuta egongo da: irteerarako bakarrik. Ordutegia, barriz, honako hau izango da: asteleheneretik zapatuta, goizeko 5:30etik eguerdiko 13:30era.

Don Tello kalean be aldaketak egingo ditue: kale horretarako sarrera han garajeak daukiezen auzokoendako mugatu dabe.

Errebonbillo kaleak noranzko bakarria izango dau ordenazino barria indarrean sartzen denetik aurrera: sartzeko bakarrik izango da. Irteera Montorra kaletik egin beharko da.

Taxi geralekua San Pio kalean atonduko dabe. Zorua pintatzeko lanak gaur eta asteburuan zehar burutuko ditue. Behar den tokietan trafiko seinaleak ipintzen be badabilz egunotan.

Aparkalekuak

San Pio kalea oinezkoendako gunea izango da. Ondorioz, han dagoen aparkalekuak desagertu egingo dira. Errebonbillo kalean, aldiz, justu kontrako gertatuko da. Izan be, orain ezin da aparkatu eta ibilgailuendako aparkalekuak sortuko ditue.

Ordenazino barriak Urarka kaleari be eragingo deutso. Kale horrek ordutegi murriztua edukiko dau: 9:00etatik 12:00etara. Gainerako orduetan, oinezkoendako gunea bakarrik izango da. Salbuespena dira Urarkan garajeak daukiezen bizilagunak.

Hiru hile barru, azterketa

Udal arduradunek aitatu dabenez, ordenazino barri honek ez dau zertan behin betirakoa eta zurruna izan. Indarrean sartu eta hiru

Hiru hile barru ordenazinoaren garapena aztertuko dabe, sortu leitekezen balizko arazoei konponbidea emoteko

hilera, uztaile inguruan, egoeraren azterketa egingo dabe, ordenazino zelan garatu den ikusteko. Tarte horretan sortu diren arazoak –sortuko balira– aztertu eta ahal den neurrian konpontzen saiatuko dira. ■ J.D.

Intxorta asti taldeak jai giroan ospatu eban 20. urteurrena

Hamarkada bi bete dituela ospatzeko, Intxorta asti taldeak ekitaldi sorta antolatu eban joan zen zapatuan. Goizean zehar herriko plazan koltxonetak ipini zitueen, eta kolore guztietako tailerretan parte hartzeko aukera be eskaini eban. Eguraldia lagun, gaztetxoek pozarren jardun eban tailerretan eta koltxonetan gora eta behara.

Ondoren, herri-bazkaria egin eban kiroldegian; sabela ederto bete eta gero, *Cesarren XII Probak* ikuskizunagaz gozatzeko aukera izan eban. Azkenik, Luhartz taldeak arratsalde girotu eban.

Etzirako be ekitaldia antolatu dabe. Goizean kanpamenduen muntaia egingo dabe plazan, eta Kirol Etxean –etxe urdinean– erakusketa ipiniko dabe: argazkiak, eskulanak...

IURRETA

Uda aurretik gura dau Fundigel herrigunetik kanpora Udalak

Fundigelek uda aurretik irtengo dau herrigunetik: halan aurreikusitako Iñaki Totorikaguena alkateak. Lekualdatze hori alaitan arinen egin daie itxaroten dago Udala: batetik, “ezinbestekoa” delako inguru horren garapen urbanistikogaz hasteko, eta, bestetik, galdategiak eragiten dauen kutsaduragaitik. “Galdategi zaharra da hori, eta ez daukaz barri baten bitartekoak”, gogoratu dau alkateak.

Udalak ahal dauen neurrian lagunduko dau 100 urtetik gora bertan diharduen Fundigel galdategiak herrigunetik irten daian, herriko alkateak nabarmendu dauenez.

Etxebizitzak eraikitzen hasi aurretik, itzitako orubea deskontaminatzeko lanak hasi beharko ditue

Udalak ahal dauen neurrian lagunduko dau Fundigelek herrigunetik irten daian

Galdategia botata geratuko den orubean, merkatu libreko 81 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita. Horretarako hiru urte beharko ditue, udal arduradunek azaldu gura izan daberen arabera.

Deskontaminazioa

Halan be, enpresa eraikitzaileak lursaila behin eskura izanda Fundigel galdategiaren lantokia bota eta lur-eremu horren deskontaminazio lanekin hasi beharko dau lehenengo. ■ A.B.




Gaztetxo asko batu zen plazako ekimenetan. Kepa Aginako



VI. Zirkuitua

ZINEA EUSKARAZ

Film laburren



Kabia

Eider Rodriguez, Nagore Arozena, Garazi Rodriguez, Egoitz Sanchez, Garazi Sanchez, Malalen Sukunza eta Amaia Uribe
8'



Egiatik

gezurrezko bizitzara

Ostegunean afaria zure kontu taldea: Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta German Rubio
3'57''



Lo bakarrik

Iban del Campo Uribarrena
14'



Poema

baten irakurketa

Euskal Herrian

IKB: Xabier Iñarrairregi eta Karlos Eriz
12'



Musika

Asier Urbleta San Martin
4'



P.D. Ondo ibili

PuntutapArte Produkzioak taldea: Yera Sánchez, Xabier Zapirain, Maite Leizaola, Iñaki Zapirain, Muxi Lopetegi eta Garazi Urdanpilleta
2'45''



Berde

Jose Luis Barredo, Iñigo Garcia
8'40''



Bankuaren lapurreta

Iñigo Aranbarri, Olatz Arriola-Bengoa, Kimetz Blanco, Txaber Fernandez, Julene Larrañaga, Txaber Larreategi eta Josu Martinez
3'15''

AED (Arrasate), Alzpea (Iruñea), Ametza (Ulltzama), Asapala (Mahatserría-Bilbo), Bai esan (Santurtzi), Baleike (Zumaiá), Basalarina (Laudio), Berbaizu (Deustu), Berbaro (Durango), Berbots (Erandio), Dobera (Hermitio), Euskal Birusa (Ermua), Galtzavandi (Tolosa), Ganeraz (Arratia), GEU (Gasteiz), Hitzaro (Ordizia), Hogeitalau (Aizara), Iñistorra (Urdieta), Irun iruten (Irun), Jardun (Bergara), Karrikaluz (Aizarrabia), Kima (Altsasu), Lizardi (Bilbo), Loramendi (Aretxabaleta), Mailope (Araitz-Larrauri), Manuel Laramendi (Belen), Maxixatzen (Azkoitia), Noaua (Usurbil), Pil-Pilean (Soraulze), Ttakun (Lasarte-Oria), Tiki-taka (Arabar Errioxa), Tximintx (Derio), Yartu (Urretxu), Zintzo Mintzo (Urretxu-Zumarraga), Uhagon (Markina-Xemein), Korrika Batzordeak (Amezketza, Antzuola, Ortuella), Associazione Culturale Euskara-Roma (Erroma), Bartzelonako Euskal Etxea (Bartzelona), London Basque Society (Londres), Shanghaiako Euskal Etxea (Shanghai), Sustraiak - Erroak (París)

ANTOLATZAILEA

BABESLEAK

LAGUNTZAILEAK

ABADIÑO

Ardura banaketa bideratuko dauen akordioa eskatu dabe

Udal dinamika "parte-hartzaileagoa eta aktiboagoa" lortzeko, ezker abertzaleko zinegotziek elkarlanerako deia luzatu deutsee independenteei

Ezker abertzaleko zinegotziek salatu dabenez, Abadiñoako Independentek bakarrik dabilz gobernatzeko eta "gehiengoa behar dabenean baino ez dira zuzentzen gainerako udal ordezkariengana". Ildo horretatik, udal arduren banaketa ekarriko leuken gobernu akordioa bideratzen has-teko deia egin deutsee Independenteei: "Modu publiko eta irekian elkarlanerako aukera eskaintzen deutsegu", azaldu eban eguazte-neko prentsaurrekoan Araitz Basauri zinegotziak.

Agintaldia hasi zenetik joan diren urte biak "argigarriak" ei dira, Independentek udal dinamika "zenbateraino mugatu" daberen ikusteko: "Eurentzat hartu ditue alkatetza, bi alkateordetzak, Gobernu Batzordeko kide guztiak eta Udalean dagoen bederatzita batzorde informatiboetako presidentetzak". Udal erabakigune guz-tiak "talde bakarraren esku" dago-

zela salatu eban, azken 30 urteetan Abadiñon ez dela horrelakorik gertatu gogoratuz: "Hauteskunderen ondoren, malgutasunez eta zabal ahaleginu ginen negoziatzen, baina ezetz esan eta ate guztiak itxi euskuezen".

"Independentek gehiengoa behar dabenean bakarrik zuzentzen dira gainerako udal ordezkariengana"

"Hauteskunde ondorengo lehenengo egunetik negoziatzen ahaleginu ginen, baina ateak itxi euskuezen"

Ezker abertzaleko zinegotzien eritziz, "hainbat dira Udalean funtzionatzen ez daberen arloak". Udal aurrekontuekin gertatzen dabile-

na ipini eban adibide legez. Bigarren urtez jarraian, aurrekontuak luzatu egin behar izan ditueela aitatu eban: "Indarrean dagozen aurrekontuak aurreko legegintzaldian EAJ, EA eta EB hirukoteak onartu eta oinordetzan itzitakoak dira. Triste da, baina aurreko legegintzaldian onartzen ez zitueen partidak eta zenbakiak kudeatzen dabilz eurak orain".

Egoera gainditu guran

"Baztertzalea" deritzen dinamika ez deusiela zilegitasunik eskainiko azaldu dabe, eta gaur egungo egoera hori gaintzeko borondatea erakutsi. Holan, datozen urte bietarako herri dinamika "parte-hartzaileagoa, aktiboagoa eta ordezkari zabalagoa izango dauena" sustatu gura dabe.

Holan erabakiz gero, batzordeen eraketa aldatzeko juridiko ki ez litzatekela arazorik egongo adierazo eban. ■ J.D.

Danon Artien alargunen elkarteak aurkeztu dabe

Errota kultur etxean egin eban aurkezpena



Berrogei bat lagun batu ziren aurkezpen ekitaldian. I.E.

Elkarteen erregistroan martxoan izena emon daberen elkarteak astelehenean Errotan aurkeztu daberen Danon Artien. Abadiñoako alargun eta aldentutako emakumeen jagole eta laguntzaile izateko osatu dabe elkarteak, Arantza Aranburu presidentek azaldu eban, eta emakumeek "elkarraren sostengurako" gune lez izan dairen lortzeko asmoa daukie.

Heriotza edo banaketa medio bikotea galdu eta zailtasun ekonomikoak zein bestelakoak bizi ditueen emakumeak dira elkarte honetan batu gura ditueen pertsonak. Eratu barri den elkarteak, Abadiñon bizi diren 25 bat emakume emon dau izena dagoeneko. Herriko alargun guztiei egin deutsee deialdia Danon Artien elkarteak batzeko.

Euskaltzaindiak batzarra egin dau Urkiolan

Hiztegi batua eta exonomastika gaiak jorratu ditue eguenean Urkiolako Lagunetxea hotelean izan daberen ohiko batzarrean batu diren euskaltzainek. Euskaltzain barria hautatzeko bozketak be burutu dabe Urkiolan: euskaltzain emeritu izendatu daberen Txomin Peillenek itzita hutsunea beteko dauen hautagaia bozkatu dabe.

Otsailaren 27an, Euskaltzaindiak Donostian egin eban osoko bilkuran, Piarres Charritton, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra eta Beñat Oihartzabal euskaltzain osoek 1947an Baionan sortutako Xarles Videgain euskaltzain urgazlea proposatu eban Peillenen hutsunea betetzeko hautagai. Letretan doktorea da Videgain, eta literatura eta euskal mintzairaren gaineko katedraduna.



Lagunetxea hotelean egin dabe ohiko batzarra. Judit Fernandez

IZURTZA

Bitaño elkarteak prestatu dauen ikus-entzunezkoa

14 emakume hartu eban parte grabazioan

Emakumearen Nazinoarteko Eguenean aurkeztu eban lana, herriko hogeitik gora emakume batu zituen ekitaldian. Izan be, bazkari horretan zegozenetarik gehienak, 14 bat emakume, dira Bitaño elkartearen ikus-entzunezko lanean parte hartu daberenak.

Hainbat belaunalditako emakume izurtzarrak batu ditue Rafael Amor argentinarraren *En el camino* kantaren berben irakurketa egitera. Bi minutu inguru irauten dauen ikus-entzunezkoa osatzeko, emakume horretarik bakotzak poemaren esaldi bat irakurri eban kamera aurrean, otsailean, Abadetxean egin eban

grabazioan. Sortu ebanetik Izurtzako jentegaz ikus-entzunezko lanak sortzea dau Bitaño elkarteak helburuetako bat, eta lan honetan parte hartu daberen emakume askorendako lehenengo aldia izan da modu honetako esperientzia izan dabena. Hurrengo, maiatz aldera, lanaren euskarazko bertsinoko grabatzeko helburua ei daukie. ■ I.E.

Maiatz aldera, lanaren euskarazko bertsinoko grabatzeko asmoa agertu dabe Bitaño elkarteak

Podología

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podología 100. Energetikoa

Herriko gudarrien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Durangoko Ibaizabal Ikastolak eskaintzen du:

- HEZITZAILEENTZAT HAUR MASAJE IKASTAROA (20 ordu, 2,5 orduko 8 saio)
- HAUR HEZKUNTZARAKO (0-6) MATERIAL INFORMATIKOA SORTZEKO IKASTAROA (25 ordu, 2 orduko saioak)
- IPIJIN KONTAKETA TAILERRA (10 ordu, 2 orduko 5 saio)

Ikastaroak doan izango dira.
Izena emateko azken eguna: Apirilaren 22a

Kontaktua:
04 621 54 77
ibaizabal@ikastolai.com

Ikastaroak hasteko eguna:
Apirilaren 27a

ibaizabal ikastola kooperatiba

HOBETUZ



ZALDIBAR

Meningitis kasu bi antzeman ditue eskolan

Astelehen goizean goiz jaso eben Zaldibarko herri eskolako zuzendaritzan eskolako lau urteko ume bat B motako Meningococoagaz kutsatuta zegoenaren barri, Osakidetzatik. Egoeraren barri izan ebenean, arin ipini eben, astelehenean bertan, Osakidetzak halako kasuetarako zehazten dauen protokoloa herri eskolan: lau urteko bi geletako haurren gurasoak batzarrera deitu zitueen astelehen eguerdian bertan, eta egoeraren eta hartu beharreko neurrien barri emon eutsen pediatria batek. Lau urteko bi geletako 25 umei antibiotikoa eta maisu-maistrei be tratamendua ipini eutseen.

Astean zehar eskolan beste kasu baten konfirmazioa jaso dabela azaldu deusku eskolako zuzendariak, eta hiru eta bost urteko 34 umegaz be halako kasuetarako osasun zerbitzu publikoak zehazten dauen eranjokatu dabela. Osakidetzak zehaztu deuten eran, euren esku dagozen neurri guztiak hartu ditue herri eskolako arduradunek. ■ I.E.

Haur eta maisu-maistrei be protokoloak zehazten dauen tratamendua ezarri deutsee aste honetan bertan

ATXONDO

Saneamendu sareko lanak Arrazolan

Urte honetako abendua baino lehen amaitu beharko ditue saneamenduko lanak

Zapatu honetan amaituko da Arrazola auzoan urte honetan egin beharreko sanamendu-lanak burutzeko enpresek euren proiektuak aurkezteko epea. Gobernu Taldeak esleipena burutu eta udalbatzarrera eroan ondoren, udabarri amaieran hasiko ditue lanak.

Udabarri amaiera aldera ekingo deutse 15 baserri inguru sareagaz lotzeari

2007 eta 2008 urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiak burutu zituen Apatatik Arrazolarainoko hodi biltzaileko lanak (Apatatik Arrazolarako hodi nagusiaren aldamenetako baserriak lotu zituen orduan sarera), eta lan haren jarraipena dira orain esleitezar dagoen lanak. Kasu honetan, baina, Udal Inbertsinoetarako Estatu Fondoko diru-laguntza da Udalak Arrazolako sanamenduko lanen jarraipenera bideratuko dauena. Lan horreetara bide-

ratuko dau Atxondoko Udalak Estatutik jasoko dauen 253.000 euroko diru-laguntza. Hodi nagusitik aldentuta dagozen 15 bat baserri lotuko ditue sarera.


Onura errekaentzat

Ur zikinak biltzeko orain putzu septikoak eduki behar ditueen baserrietako herritarren onurarako bakarrik ez, lanok errekaendako be hobekuntza dakarreela nabarmendu dau Gobernu Taldeak. Izan be, Arrazolako etxe, jate-txe eta aterpetxeetako ur zikinaren eragina jasan dau errekek.

Abenduan amaitzea itxaroten daben 15 baserriok saneamendu sareagaz lotzeko lanen ondoren, gainerako baserriak lotzeko lanen finantzabidea lortzeari ekingo deutso Udalak. ■ I.E.

Udal Inbertsinoetarako Estatu Fondoko 253.000 euroko diru-laguntza baliatuko dabe lan honek burutzeko

Saneamendu-hodi nagusiagaz lotuko ditue Arrazolako 15 baserri aurten, eta beste horrenbeste aurrerago



Saneamendu nagusiagaz lotuko ditue hainbat baserri. I.E.

MARTXOAK 31

DURANGOKO BOMBARDATZEAK OROITUZ

DURANGO 2009 MARTXOAREN 29tik 31ra

MARTXOAK 29 IGANDEA

12:00
DURANGOKO BOMBARDAKETETAN HILDAKOEN ALDE LOREAK JARTZEA
Ekitaldira hurbiltzen diren guztiak lore zuri bat jasoko dute panel baten jartzeko. Panela irudi sinbolikoa bilakatu da. Panela osatu eta gero, Udaltzako balkoian jarriko da ikusgai.
Andra Mariako elizpea

MARTXOAK 30 ASTELEHENA

0:00
PUZZLE ERRALDOI BAT EGINGO DA DURANGOKO BOMBARDAKETAK OROITZEKO
Andra Mariako elizpea

19:00
ZINE EMANALDIA: "LOS NIÑOS DE RUSIA"
JAIME CAMINO
San Agustín Kultur Gunea

MARTXOAK 31 ASTEARTEA

09:00-21:00
ARGAZKI ERAKUSKETA
Andra Mariako elizpea

13:00
GERRA ZIBILAREN BIKTIMEI OMENALDIA KANPOSANTUAN
Autobus zerbitzua: Irteera 11:30etan Koroak kalean, Jesusen aurrean

20:00
OROIMEN EKITALDIA ANDRA MARIAKO ELIZPEAN

- Lore ekarpena
- Aurrerakua
- Oroimen inburtuta
- Musika emanaldia

BERRIZ

Landa eremua informazino teknologiagaz lotzeko asmoa

Urkiola Landa Garapen Elkartearen eta Mendineten egitasmoa da

Urkiola Landa Garapen Elkarte eta Mendinet 'Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Dinamizatzaileen Proiektua' lantzen dabilz. Egitasmo horren helburua landa-eremuak informazino gizarteagaz bat egiteko laguntza eskaintzea da.

IKT dinamizatzaileak inkestak bitartez baliabideen diagnostiko sakona egiten dabilz, IKTek Durangaldean daukien benetako ezarpena ezagutzeko. Diagnostikoa egin eta gero, dinamizazio egitasmoak diseinatuko ditue.

IKTekin lotutako jarduerak hezgarriak be burutuko ditue: gaitasun teknologikoari buruzko ikastaroak, esaterako. Horrez gainera, eskualdean telebista, irratia, telefonoa eta Internet banda zabalaren seinaleen kalitatea aztertu eta gabezien mapa eratuko dabe.

Konexinoa sustatzen

Landa-eremuko langile autonomo eta enpresa txikien konexinoa sustatzen be ahaleginduko dira. Horretarako, administrazioek eskaintzen ditueen diru-laguntzen barri emongo dabe. Azkenik, udalerrien webguneen aldeko promozinoa bultzatuko dabe. ■ J.D.



Landa eremua teknologiarantz hurreratu gura dabe.

OTXANDIO

Pasealeku elkartearen urteko batzarra domekan

Zuzendaritzako kide barriak aukeratuko ditue

Pasealeku jubilatuen elkarteak domekan urteko batzarra egingo dau, 11:00etan, Kultur Etxean. Bertan, igazko diru-kontuak eta administrazioa aztertuko ditue.

Batzar Orokorrean zuzendaritzako hainbat kargu barri hautatuko dabe. Elkartearen egindako beharra eskertu gura deutse ondoko: Nikolasa Askorbebeitia (lehendakariordea), Karmele González de Langarika (idazkaria), Markos Unzalu (bokala) eta Pepita Bengoa (bokala). Horreen orde, beste lau kide proposatu ditu Zuzendaritzak: Irune Urigoitia (lehendakariordea), Marino Soloeta (idazkaria), Carmen Soloeta (bokala) eta Petra Uribe (bokala).

Castellórako irteera

Pasealekuk maiatzean Vinaròs-era (Castelló) astebete joateko txangoa

antolatu dau. Maiatzaren 18tik 25era bitartean, hondartzaz gozatzeko aukera edukiko dabe. Izen-emotea hasita dago eta 60 euro ordaindu behar dira; gero, maiatzean, beste 200. Prezioak bidaia, astebeteko hotela eta otorduak, Peñiscola eta San Mateo-eko egun erdiko bi txangoak eta aseguru hartzen ditu. ■ M.G.

Maiatzaren 18tik 25era Vinaròs-era joateko interesa daukienek emon leikie izena
Astebeteko bidaian, hotela eta otordu guztiak barne, Peñiscola eta San Mateo egun erdiz bisitatuko ditue
MALLABIA

Punta-puntako bertsolarien saioa bihar

Orraitio euskara elkarteak antolatuta, azken urteetako ohiturari jarraituz, bertso saioa izango da bihar, martxoaren 29an, arratsaldeko 17:30ean Mallabiko pilotalekuan.

Saioan Joxe Agirre, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amaia Agirre eta Beñat Ugartetxea bertsolariek parte hartuko dabe. Gai-jartzaile eta saioaren gidaria Asier Ibaibarriaga ermuarra izango da.

Sarrera 5 euro izango den arren, Orraitioko bazkideek doan joan ahal izango dabe.

Orraitio eratzten dituen urteko ekitaldien artean bertso saioa arrakastatsuenetakoa izaten da. Aurten hirugarren urtea da antolatzen dabena, eta aurreko urteetan izan dauen erantzun ona ikusita aurrerantzean be "jarraipena izatea" itxaroten dabe. ■ Pello Mugarza

DURANGALDEA

Ziortzako kolegiatara martxa

Bake bidean lelopean, Bolibartik Ziortzara ibilaldia egiteko Bizkaiko 1.000 parrokoa inguru batuko dira zapatuan, eta Durangaldetik be zortzi autobus inguru joango dira, Tabira Eskualdeko arduradunek azaldu dabenez. Garizuman "bakearen eta adiskidetzaren alde" egindako kanpainari amaiera emoteko egingo dabe martxa, Bolibarko plazan hasi eta Ziortzako kolegiataraino; 10:00etan egin dabe hitzordua Bolibarren. Otoitzean eta abestuz egingo ditue kolegiataraino heldu arteko kilometro biak: "Bakea familietan, gizartean eta lan hartu-emonetan, bakea herrietan" eskatuko dabe, esan dabenez. Hautsen Eguaztanean hasitako *Bakea bidean* ekimena Bizkaiko Elizan egin den III. Egitasmo Ebanjelizatzailean kokatu leiteke.

DURANGO

'Ardo Saltsan' bihar Landakon

Euskal Herriko eta nazioarteko 56 upeltegik eskaintako 150 ardaotik gora—36 jatorri-deiturakoak—aukera eskainiko deusku zapatuan 'Durango Ardo Saltsan' II. Azoka Enogastronomikoak. Landako erakustazoka izango dau aterpe aurten 16 upeltegi gehiago batu jakozen azokak, eta 11:00etatik 21:00etara izango da zabalik. Ardaoaz gainera, olio, urdaiazpiko iberikoa eta izokin ketua probatzeko aukera be eskainiko dau azokak; barrikuntza lez ahatea eta horren eratorriak be bai, *slowfood*aren baitan batutako jakiak eta munduko urak (Italia, Ingalaterra...) ez eze. Delicatessen eta *slowfood* produktuen 14 ekoizle be batuko dira, gainera. Barrikuntzen artean, ardoaren kulturaren gaineko berbaldea be antolatutako dabe.

Esti Zurikarai Aralarreko zinegotziak kargua itzi dau

Bi urtez Durangoko Udaleko zinegotzia izan ondoren, Esti Zurikarai kargua iztea erabaki dau "arrazoi pertsonalengaitik". Aralarrek jakitera emon dauenez, "bi urtez zinegotzi izateko konpromisoa hartu eban, eta epe hori beteta gurago izan dau erreleboa emotea". Iker Urkiza izango da Zurikaraiaren lekua beteko dauen zinegotzi barria. 29 urteko durangar hau informatikaria da, eta Lan Harremanak ikasten dihardu.

ABADIÑO

Floren Aoz hizlari Zelaietako Bazkaloste Kulturalean

Konbentzioko gerla Euskal Herrian (baita Abadiñon ere), eta I. Karlistaldiaren hasiera berbaldea eskaini eban, joan zen zapatu arratsaldean, Zelaia



Kepa Aginako

hotelean historiari buruzko hainbat liburu idatzi dauen Floren Aoz tafallarrak.

Urrian Eguen Kulturalean egin bazitueen, azken bi berbaldiak mahaiaren bueltan eta kafe baten laguntzagaz egin ditue Bazkaloste Kulturalean: *Argitu dezagun Iruña Veleia eta Heminway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* hitzaldiak izan ditue. Udazkene-rako itzi dabe laugarren berbaldirako zita antolatzaileek.

BERBAZ >**Javier Gorosarri •**

- Durangarra da; urte askoan Berrizen bizi da
- Azaroan 80 urte beteko ditu

Iban Gorriti

"Gerraostea gerra bera baino gogorragoa egin jatan"

Durangoko bonbardaketaren urtemugaren harira, sasoi haretako bizipenak kontatu deuskuz Javier Gorosarrik

Javier Gorosarrik 1937ko martxoaren 31n zazpi urte baino ez zeukazen arren, Durangoko bonbardaketa atzo gertatu balitz legez gogoratzen dau. Egun haretan ospitalean zegoen, bala galdu batek eragindako zauria osatzen. Gertaera latz ha bertatik bertara ikusi ez baeban be, bere eragina ospitalean berehala ikusi eban. Erbestea eta gerraosteko gosea be ezagutu zituela kontatu deusku orain, bonbardaketaren 72. urtemuga betetzera doanean.

1937ko martxoaren 31n ospitalean zengozen. Zer dela-eta? Tabirako elizan milizianoak zegoen. Estankonaren fundizino ondolik izekoagaz nindoala, bala galdu batek emon eustan, lepotik bularrerainoko bidea eginez. Zazpi urtegaz bizia galtzeko zorian egon nintzen. Handik Durangoko Ospitalera eroan nindueen oso egoera larrian.

Esperientzia hazelan gogoratzen dozu?

Zauria osatzeko, zilarrezko nitratoagaz erretzen eusten. Ospitaleetan ez zeukien gaur egun daukiezen baliabiderik. Pepita eta Jose Egia erizainak zirela gogoan dot. Erbestetik itzultzean, osaba Jose esaten neutsan.

Martxoaren 31n, ospitaletik gertu bota zitueen bonbak.

Zazpi urte baino ez neukazen arren, zarata eta beldurra gogoratzen dodaz. Jentea ari-eketan babeslekuetara joan zen. San Agustinen, tranbiaren geltoki ondoan, babesleku bat zegoen. Zauritu asko ekarri zitueen ospitalera. Aurretik be, Otxandioko fronteko zaurituak ekartzen zitueen.

Ondoren, amagaz ihesari ekin zeutsan.

Amak hiru neba-arrebok hartu eta Bilbora eroan gintuen. Handik Las Arenas eta Castro zeharkatu ondoren, Santoña-

ra heldu ginen. Itsasontzian joan ginen Frantziara.

Zaurituta halako bidaia egitea ez zen erraza izango.

Meritu guztia amarena izan zen. Hiru neba-arrebok berari esker ihes egin genduen. Koltxoi bategaz alde guztierra joan zen gugaz.

Durangoko jenterik topatu zenuen bidean?

Bai. Jaunartzea hainbat durangarregaz Frantzian egin behar izan genduen: Irigoras, Goienetxe...

Eta itzulera?

Irunetik bueltatu ginen. Alde guztietan Francoren paperak ikusi genduzen. Tabirara itzuli ginen amamarengana.

Zelan topatu zenuen Durango?

Itzuli ginen lehenengoetakoak izan ginen. Apurtuta zegoen dena. Ondoren, presoek Andra Mariko elizpea zelan konponitzen eben ikusi genduen.

Gerraostea zelan gogoratzen dozu?

Gerraostea gerra bera baino gogorragoa izan zen. Gose itzela pasatu genduen. "Auxilio Social" zelakoan jaten genduen. Ilara luzeak sortzen ziren. Mendizabalekoek ekonomatua zeukien.

Goseaz gainera, beste zailtasun batzuk be bizi zenuezen.

Gazte askok tuberkulosia eta beste gaixotasun batzuk sufritu zitueen. Medikuntza ez zegoen hain aurreratuta. Alde horretatik, penizilinaren sorrera oso garrantzitsua izan zen sasoi haretan.

Aita kartzelan egon zen.

Bai. Ihesi eta erbestean ibili ginen sasoi jakinarazo euskuen aita kartzelaratu ebela. Aske itzi ebenean, lana galdu eban ferrokarriletan eta beste bat topatu behar izan eban. Arotza zenez, ez jakon lanik falta izan.

■ Jone Guenetxea

"Milizianoen bala galdu batek zauritu eta hilzorian egon nintzen"

"7 urte neukazen arren, bonben zarata eta beldurra gogoan daukadaz"

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

55 kaleratzeren kontrako mobilizazioak Layden

Durangoko enpresako beharginek 24 orduko lanuztea egin eben atzo, "enpresaren jarrera" salatzen



Laminación y Derivados enpresako beharginek manifestazioa egin eben atzo arratsaldean Durangon. Iban Gorriti

Enpresako zuzendaritzak hartu gura dituen neurriak salatu guran, Laydeko beharginek greba eguna izan eben atzo. Aurreko egunetan be hainbat protesta ekintza egin ditue; azkenengoa, atzo arratsaldean Laminación y Derivados enpresako bulegoen aurretik abiatu zen.

Enpresa komiteak (ELA, LAB, CCOO) jakitera emon dauenez, Corus taldeko lantegiaren zuzendaritzak 55 lagun kaleratu gura ditu. "Hasieran langileen izenekin osatutako zerrenda bat filtratu eben. Zerrenda hori erretiratu egin daben arren, jarrera ez dabe aldatu". Kalte-ordainak jaso eta enpresaziteko proposamenari 30 beharginek baiezkua emon deusielako dinok sindikatuek: "Falta diren kontratu horreek desegiteko erregulazio-espeditera joko dabela mehatxatu dabe", adierazo dabe sindikatuetako ordezkariak.

30 beharginek kalte-ordaina jasotzeko erabakia hartu dabe

Zuzendaritzak aurkeztu dauen bideragarritasun planaren atzean langileen artean "garbitaketa" egiteko asmoa dagoela somatzen dabe sindikatuek: "Plan horretan ez dabe instalazioen hobe-

kuntzarik ez makinetan inbertsionorik aurreikusit. Halan, ezinezkoa da 55 lagun gitxiagok ekoizpen maila mantentzea".

Sindikatuek hainbat eskaera egin deusie enpresari: langileak gogoz kontra ez daitezela joan, kontratuak desegiteko "mehatxua" erretiratu daiela, kalte-ordainak

Laydeko zuzendaritzaren bideragarritasun plana kritikatu dabe sindikatuek

hobetu daiezela eta babes-klausula izango dauen lan-poltsa bat adostea.

182 beharginek atzo arteko epea izan dabe kalte-ordaina onartu eta enpresa euren borondatez izteko. Enplegu-erregulazio espeditentean egon dira joan den astea arte. ■ J.G.

> DURANGALDEA

Aurten be, Durangaldeko ordezkariak Ferroforman

Denera, 27 herrialdeko 776 enpresa dagoz ordezkariak egunotan BECen

Burdineria, industria hornidura eta brikolajearen dihardueen enpresen topagune da egunotan Bilbao Exhibition Centre (BEC). Eguaztenean zabaldu eben Ferroforma azokak 27 herrialdeko 776 enpresa batu ditu oraingoan, eta Durangaldeko sektoreko enpresak be ez deusie hutsik egin urte birik behin daukien hitzorduak.

Abadiñoko Celesa S.A. eta Imcoinsa 1985 S.A., Berrizko Manufacturas Inaug. S.L., Elorrioko La Industrial Cerrajera S. A. (Lince) eta Izurtzako Katiak S.A. enpresak jarri dabe erakustokia

BECen; baita Zornotzako Amilibia y De La Iglesia S.A. (AMIG), Izar Cutting Tools S.A.L. eta Garhe S.A. enpresak eta Ermuko Corte y Suministros S.L. enpresak be.

Krisiaren eragina

Eraikuntza eta industria arloetako krisia agerian geratu da Ferroforman. Izan be, azken aldiagaz alderatuta, %41 jaitsi da parte hartuko daben enpresa kopurua. Durangaldekoak be gitxiago izan dira aurten.

Industria hornidura, eraikuntza eta lan-babesa (%24),

esku-erreminta (%23) eta burdineria eta etxea (%16) dira esparru nagusiak; gero, sarrailagintza eta burdineria (%11), apainketa, argiztapena, hornidura eta lorezaintza (%10), finkapena (%7), zurerako makineria eta elektro-mugikorra (%7) eta zerbitzuak (%2). ■ A.B.

Eraikuntza eta industria sektoreetan krisiak izandako eragina agerian geratu da Ferroforman

■ kolaborazioa



Mikel etxebarria ELA sindikatua

Shock egoeran

Durangaldea gaur egun, krisi ekonomiko-sozial latza pairatzen ari da. Esan daiteke "shock" egoeran gaudela. Eszenario honetan, aipatu nahi ditut Patronalaren errezetak krisi egoera honi aurre egiteko: lan kaleratzeak dohainik (ebentualak lehenak, isilik eta ohiartzun mediatikorik gabe), kaleratze kolektiboak, soldata jaitsierak, lan hitzarmen edo paktuen modifikazio erregresiboak, flexibilitatea eta abar luzea.

Shock Doktrina Naomi Klein estatu batuarrek 2007an idatzitako ezinbesteko liburuak zera dio hitz gutxitan: kapitalista neoliberalak argi dute "shock" egoerak aldaketak probokatzen dituztela, eta aldaketa horiek merkatu askea eta erregulazioa desegiteko dogmen bidetik joan behar dutela. Aldaketok ez dira egin nahi demokrazia eta askatasun egoeran. Aitzitik, "shock" egoeratik sortu dira. Patronala "shock" egoera baliatu nahian dabil. Hala ere, Naomi Kleinek "shock" egoerak definitzeko aldi batekoak edo behin-behinekokoak direla ere zehazten du. Eta horren jakitun denok izan behar dugula.

Durangaldea, ziur aski, Euskal Herriko eremurik minduena da krisi honetan. Patronalaren errezetak abian dira gurean, eta egoera gero eta okerragoa doa. Eta zer egin dute orain arte Euskal Herriko gobernuek eta instituzioek honi aurre egiteko? Ezer ere ez.

Patronalak eta bankuek lapurtu egin dute; bakoitzak bere mailan eta eremuan. Beraien erruz gaude krisi honetan. Lapurrak dira. Eta eskularri zuria jarri dietenak gobernuak eta botere politikoak izan dira. Hauek ere lapurrak dira: hauteskunderetan egun bakar baten gizarte langilego eta zibilaren subiranotasuna lapurtzen dute, hurrengo 4 urteetan patronal, banku, aberats eta interes pertsonalak (lukratiboak) dituzten politikoen aldeko politikak egiteko.

Eta honen aurrean zer egin? "Shock" egoera gaintuz, kalean eta hedabideetan presioa eginez (teknologia berriak kontutan hartuz), botere politikoaren politikak aldatzeko bidean borroka egitea geratzen zaigu.

KULTURA[>]

Kepa Aginako

ANTZERKIA > EMANALDIA

Desberdina errespetatzen ikasteaz, Murren Bidaia

Behi-Bis taldeak ekoiztutako lana da *Murren Bidaia*, joan zen zapatu arratsaldean Durangoko San Agustin kulturgunean ikusteko aukeran genuena.

Oholtzagainean hezur-haragizko lagun bakarra agertzen du Udaleko Inmigratio Sailak ekarri zuen ikuskizunak. Patricia Franco antzezlea da bera, eta ekialdeko herrialde batetik etorritako Natacha etorkinaren papera egiten du antzezlanean. Berarekin, baina, trapuzko pertsonaia txikiagoak ere badaude Behi-Bis taldearen ikuskizunean. Titereak dira beste pertsonaia bi horiek, Patricia Franco aktoreak bizi eta mugiarazten dituen pertsonaiak.

Ekialdetiketorritako Natacha da *Murren Bidaia* eta Mure eta Txemaren istorioa kontatzen duena. Afrikatik txalupan iritsitako Mure eta ailegatzan den herrialdeko Txemaren arteko adiskidetasuna da ardatza. Umeak desberdina denarekiko sentsibilizatzea eta tolerantzia sustatzea da 5etik 11 urte bitartekoentzat sortutako antzezlanaren helburua.

Publiko nagusiagoa ere desberdintasunak dakarren aberastasunaz ohartarazten duen ikuskizuna aukeratu zuten Arraza Diskriminazioaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, San Agustinen erakusteko: Lierni Fresnedo eta Patricia Francok sortutako *Murren Bidaia*. ■ I.E.

12 > 'Anitzak Hitzak' Plateruenean

Bertsolaritza, hip-hopa, multimedia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna dakar Durangora Korrika Kulturalak, Anitzak elkartearen eskutik.



13 > Poema bat film laburrean

Karlos Eriz eta Jabi Iñarrairaegik Elorrion duten lantokian sortutako film laburra eta beste zazpi emango dituzte Film Laburren Zirkuituan.

KORRIKA KULTURALA > EMANALDIA

Bertsoaren eta hip-hoparen arteko elkarrizketa Durangon

Migrazioari buruzko berbak eta musika Durangoko Plateruenean



Bi urterik behingo Korrikari esker lortutako diru-baliabideen parte bat "onura ekonomikorik ez dakarten baina gizarte-onura bilatzen duten ekimenetan inbertitzeko modu" bezala ulertzen du AEK-k Korrika Kulturala. Egitarau horretan antolatzen du, Korrika bera ailegatu orduko, herri eta hirietan hainbat kultur emanaldi.

Euskarazko arte eszenikoak bultzatu eta euskal sortzaile berriekin bidea egiteko helburu horretan, Anitzak elkarteak bultzatuta sortu dute *Anitzak Hitzak* proiektua: bertsolaritza, musika, hip-hop eta multimedia uztartzen dituen proiektua.

Martxoaren 28an Durangoko Plateruenean, 22:00etan hasita, izango da *Anitzak Hitzak*, eta gonbidatu bereziak izango dira gainera: MC Lahaine hip-hop abeslaria, Angolako Beto Sany, Marokoko Zhoeir MC, break dantzariak eta gitarra flamenko-jotzailea igoko dira bihar Durangoko Platerueneko eszenatokira.

Pantaila erraldoia, bost bideo sortzaile, bi musikari eta MC (hip-hop abeslaria) eta bertsolari bana arituko dira ordu eta laurdeneko Plateruena antzokiko saioan. Bertsolariaren eta hip-hoparen arteko elkarrizketa eta hartu-emanarekin gozatzeko aukera izango dute entzuleek.

Xabier Silveiraren bertsoak hip-hop abeslariarekin batera

Migrazioaren gaiaren inguruko gogoetak eta berbak plaza-ratuko dituzte Anitzak elkarteak bultzatutako kultur ekimenean. Nafarroako bertsolari txapelketa irabazi berri duen Xabier Silveira bertsolariak eta hainbat jatorritako hip-hop abeslariak elkartzeko dituzte ikuskizunak. Musika programazioan Dabid Nanclares eta Asier Ercilla arituko dira. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Tabira Banda, Orfeoia eta Bartolome Ertzillako ikasleak

Aste Santuko doinuak izeneko kontzertua eskainiko dute, martxoaren 28an 20:15ean hasita, Durangon, Tabira musika bandak eta Durangoko Orfeoia. Urribarriko Andra Maria basilikan izango da kontzertua. Bandaren zuzendaritzan Miguel Arbelaiz eta Orfeoia zuzendari Mila Milikua arituko dira. Orfeoia laguntzen, Gerardo Rifon organo-jotzailea arituko da, eta musika bandako eta orfeoiko argazki zaharren sorta erakutsiko dute emanaldian.

Aurretik, martxoaren 27ko 19:00etarako hitzartu dute Bartolome Ertzillako musika eskolako aretoan izango den kontzertua. Musika eskolan Iñaki Jaio irakasleare-

Martxoaren 27an egingo dute musika eskolako ikasleek emanaldia

Martxoaren 28an arituko dira Orfeoia eta Tabira Banda

kin aritzen diren ikasleek eskainiko dute aipatutako kontzertu hori. Blues eta rock kanten bertsoiak joko dituzte, eta eskolako umeen abesbatza, baxu, saxo eta gitarra ikasleak ere arituko dira. Kings, James Brown eta Z.Z. Top taldeen bertsoiak egingo dituzte.

Apirilaren 3an, BOS
Barikuan, berriz, Bilboko Orkestra Sinfonikoa izango da 20:00etan San Agustinen izango dena. Jacques Ibert konposatzaileak flauta eta orkestrarako sortutako kontzertua eta Guridi zein Beethovenen lanak eskainiko ditu BOSeK. Xavier Calzada flautista gaztea izango da musikari nagusia. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia Euskaltzaina

Martxoaren 31koa ikasi ete dogu?

Urtero legez oroitu da faxista italiarrek, Errepublikaren kontra altxatu ziren Franco eta Molaren agindupean, Durangoko uria basati bonbardeatu eben eguna. Baina duda handia daukat "ospakizun" horri benetako probetxu historikoa ateratzen deusagun. Lar ahaztu dogu orain 72 urte militar golpista eta Nafarroako Brigaden atzamarretan eskualde hau zergaitik, zelan eta zer ondorioz jausi zen. Gure politiko asko, kazetari eta historialari ugari, alzheimer historiko selektiboz jota dagozela dirudi.

1975ean, diktadorea hil zenean, denok pozik ezta? Ba, ez, durangar asko ez. Handik lau urtera, lehenengo udal hauteskunde demokratikoak egin zirenean, diktaduraren kutsaduraz lotsatuta-edo, aurkeztu ere ez ziren egin frankista-ohiak. Ondorioz, EAJ, HB eta EEK gehiengo izugarria Durangon. Jeltzaleek hausnartu dabe orduantxe bakarrik izan dabela gehiengo osoa Zeharkaleko jauregian? Eta 1980ko Eusko Legebiltzarreko jeltzaleen gehiengo ez zela benetakoa, HBk, norbaiten aginduz, lehen legegintzaldietan, boikot parlamentarioa eginez, gehiengo "dohainik" erregalatzen eutselako baino, mahaia barne?

Gogoratzen naz zer esan eutsan Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Ardantza lehendakariari bera bisitatzen joan ginenean: "Jose Antonio, zoaz pentsatzen espainiar eskuiak bere lekua hartuko duela eta gehitzen joanen dela emeki-emeki, frankismo garaia urrunduz geroz. Gauza bera gertatu zitzaigun Iparraldean nazien kolaborazionista izandakoekin, ez 1946an, geroago baizik". Durangon bigarren indarra izatera ere iritsi da, oker ez banago.

Azken hauteskundeen osteko abertzaleen panorama zeharo iluna da. Eari, 90eko hamarkada hasieran EEri jaso jakona gertatu jako, hots, albokoan etsaigoz eta norberaren demerituz, galbidean; EAJ Lehendakaritza eta gobernu galtzeko zorian; ezker abertzale tradizionala, pipadunen morrontzatik irten ezinda. Irratian eta telebistan publikoki esan neban poztu nintzela Aralarren igoeraz, baina, pena hartu nebala EBren jatsieraz.

Lizarra-Garaziko fronte abertzalea estrategia nazional okerra zela esan neban, are okerragoa heriotza atentuen ondoren. Mitxelena maisu eta gudariak konbentzitu ninduen aspaldi: "Fronte batek beste bat dakar". Eta orain, prezio frontista-espainolista ordainduz, Lehendakaritza lortu ahal izateko, 1937an bonbardaketa berbera eta militar-erreteteen zapalkuntza berbera jasanakoa sozialistak beste fronteko jarriko dira? Irabazle nortzuk?

Eta noiz arraio egingo da autokritika sakon bat abertzale munduetan? Eta noiz hamarkadaz hamarkadako beharakadak aztertuko? Noiz indar eskaseko armadunek armak desegingo? 1937ko martxoaren 31ko "ospakizun" karietara, gure historia tristea errepatatuz, badaukagu denok zer hausnartu. Sozialistek be bai.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MARTXOAK 27 21:30ean
KORRIKA AFARIA +
ERROMERIA AIKO TALDEAREKIN
AFARIA + ERROMERIA. Afora: 18 euro.

MARTXOAK 28 22:00etan
ANITZAK HITZAK
Irudi, bertso, musika eta hiphop
IKUSKIZUNA. Sarrera: 5 euro.

MARTXOAK 29 17:30ean
ERIZ MAGOA
UMEENTZAKO ANTZERKIA.
Sarrera: 4 euro.

APIRILAK 1 20:00etan
KOLORADO ERREKA
GRAND CANYON
DOKUMENTALA. Sarrera doan.

APIRILAK 2 20:00etan
FILM LABURREN
ZIRKUITOA
ZINEA EUSKARAZ. Sarrera doan.

APIRILAK 3 22:00etan
AKATZ
Rudo Tour 2009
KONTZERTUA. Sarrera: 7 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Companhia de Chapit6 (Portugal)

DRÁKULA

Martxoak 29
igandea 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11:94 601 07 76 Irtekalde, 11 Durango

HITZ

Liburudenda

IKUSENTZUNEZKOA > ELKARRIZKETA

“Tortura jasan dauen hainbat lagun grabatu genduen olerkia errezitatzen”

Topaguneak antolatzen dauen Film Laburren Zirkuituan jaso dabe Karlos Eriz eta Jabi Iñarraireagik egindako ‘Poema’ lana; Apirilaren 2an emongo dabe Plateruenean

Zelan sortu da ‘Poema baten irakurketa Euskal Herrian’ proiektua?

2007ko martxoan edo otsailean burutu genduen lana da; Lekeitioko Zine Bileran be aurkeztu genduen igaz. Torturaren Aurkako Taldearen enkargua da: torturaren gaia beste modu batean lantzeko proposamena. Torturari buruz dena esanda dagoela emoten dau batzuetan, baina oraindino errealitate lazgarria izaten darrai.

Zer ideiatik abiatu zenduen ikus-entzunezko lana?

Koldo Izagirreraren ideia izan zen Wislawa Symborska-ren *Torturak* poema hartu eta torturatuen ahotan jartzea. Hainbat urte eta belaunalditako jentea batu genduen, Euskal Herrian tortura jasan dabena. Zoritzarrez, Euskal Herrian jente asko izan da eta da torturatua. Ahalik eta jente ugariena hautatu dogu: emakumeak, gizonak, gazteak zein helduak.

Zelako esperientzia izan zen? Esperientzia oso hunkigarria izan zen jentea poema errezitatzen ikustea. Prestatu barik, poema emon eta irakurtzen eben. Aulkian jesartzeko eta irakurtzeko eskatu geuntsen.

“Jesartzeko eta poema irakurtzeko eskatu geuntsen”

Irudiek beste indar daukie berrek lan horretan, beraz?

Bai. Bat-batekotasunagaitik bebai: indar gehien daukana poemairakurri ondorengo jentearen begirada da. Poema bera hainbat bider errepikatuta egin genduen gero muntaia.

Poema bera hainbat ahotsek irakurrita entzuten da...

Bai. Poema laburra da, eta jente askoren artean irakurrita osatu dogu bideoaren muntaia. Gura ebanak euskaraz eta gura

ebanak gazteleraz irakurri eban *Torturak* poema, eta gaztelerazko eta euskarazko bertsinok sortu doguz gero.

Eta non egin zenduen irakurtaldien grabazioa?

Hainbeste jente zenez, hainbat hitzordu egin genduen: Iruñean egin genduen grabazio bat Nafarroako jenteezagaz, eta gainerakoak Elorrioko Arriolako eszenatokian.

“Torturaren Aurkako Taldearen enkarguz egin genduen lana”

Emaitza zenbat denporako film laburra da?

Durangoko Plateruenean emongo dabena 11 minutuko lana da. Gaztelerazkoa, barriz, 7-8 minutukoa.

Nortzuk agertzen dira ikus-entzunezkoan?

Ezaguna den jentea dago, baina baita ezezagunak direnak be: Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Felix Azurmendi... agertzen dira olerkia irakurtzen. Bideoan agertzen den jente hori guztia torturatua izan dela ohartzea ikaragarria gertatzen da.

Topaguneak eskaintzen deusuenaz gainera, izan dozue lana erakusteko beste aukerarik lehenago?

Torturaren Aurkako Taldearen urteroko txostenagaz banatu eben, eta DVDa Gara egunkariagaz zabaldu eben. Topagunekoek eskaini deuskue aurten euren zirkuituan sartzea, eta pozik hartu dogu jentek ikusteko aukera hori emotea. Interneteko YouTube sarean be zabaldu dogu kanal bat.

Enkarguak jasota abiatzen dozue lanak normalean?

Bai, enkarguz jasotzen doguz lanak burutzen doguz. Guretzako gauzak egiten be saiatzen garen arren, bizimodua atera-



tzeko enkarguak hartu behar izaten doguz. Baina oso lan politak izaten dira enkarguok –AEK eta antzekoak izaten dira gure bezeroak–, eta ez dira lan komertzialak izaten. Erreportajeak, publizitateak eta dokumentalak egiten doguz, eta hori dauka ona: aldi bakoitzean gai baten ingurukoa izaten dela.

Esperientziagaz lortu dozue lanak hautatzeko modua?

Hamabost urte daroaguz honetan, eta, egia esan, beti ibili gara halako enkarguekin. Grabazioak egiten aritu izan gara beti.

Bietako bakoetak bere zeregin espezifikoa izaten dau?

Dena nahastuta egiten dogu! Errealizazioa zein produkzioa biok egiten dogu. Hamabost urteotan izatezko bikote bilakatu gara esaten deuskue...

Jenteak ikus-entzunezkoetara gehiago jotzen dau orain?

Beti eduki izan dogu irudi bat, ‘surferoarena’ esaten deusaguna; lasaitasuna nagusi denean esaten dogu: “Etorriko dira olatuak?”, hau da, lana. Bat-batean, beharbada hiru etortzen dira batera. Beti gabilz holan.

“Korrika grabatzen jardungo dogu datorren astean”

“Lanak abiatzea da gatxena: bezeroagaz zein gure artean ados jartzea”

“Izaten doguzen enkarguak ez dira komertzialak izaten”

Lan finko edo urteroko batzuk lortu dozue, baina...

Korrika ailegatzen denean, esaterako, urtero egiten deuskue enkargua. Lan finko batzuk badaukaguz. Gure esparruan ez dogu azken urteetan aldaketa askorik nabaritu.

Orain zertan diharduzue?

Praileaitzeko kobazuloan grabaketak egiten dihardugu: jarraipena egiten. Datorren astean, bestetik, Korrika grabatzeari ekingo deusagu.

Zer dozue gogokoen?

Denetik egitea. Dena da interesgarria. Gu oso pozik gagoz gure lanagaz. Gatxena lanak hastea izaten da: berezoak zer gura dauen, zer egin gura eta ahal dozun, aurrekontua... Batzuetan gatxa izaten da lehenengo bezeroagaz eta gero gu bion artean adostea... Gogorra izan arren, baina, beti da aberasgarria.

Gogorra, eta ordu askotako lana izango da.

Bai. Gaupasa asko egin izan dogu hemen! Epeak izaten dira lanak entregatzeko. Eta lanaren parte da denpora faltagaz jardun behar izatea be. ■I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

Rosa Etxaberen lanak Berrizko Kultur Etxean

Apirilaren 8a arte daude Berrizko Kultur Etxeko sarreran Rosa Etxabe Barruetabeñaren lanak

Martxo amaieran ipini dituzte Berrizko Kultur Etxeko aretorako sarrerako hormetan Rosa Etxabe Barruetabeñaren koadroak, eta apirilaren 8a arte izango dira bertan bisitagai. Dozena bat koadro daude erakusketan batuta, askorako teknika eta gaiak lantzen

Dozena bat koadrok osatzen dute Rosa Etxaberen erakusketa

dituen artistaren lanaren erakusle. Koadro oso koloretsu eta detaille askokoak –denboraz begiratzekoak– ikusteko, eta Rosa Etxabe Barruetabeñaren lana ezagutzeko 18:30etik 20:30 bitarteko ordutegia zehaztu dute, eta Kultur Etxean antzerkia edo bestelako ekitaldiak daudenean ere hartu dezake interesa duenak erakusketa ikusteko tartetxo bat.

Harearekin eta pintura akrilikoarekin sortutako koadroak bildu ditu, besteak beste, erakusketarako Etxabek, formatu ertaneiko euskarriak baliatuta denon bistara jarri dituenak. ■I.E.



POESIA > ERREZITALDIA



Poesia Eguneko berba eta akordeak

Martxoaren 21ean, Abadiñoko Errota kultur etxean poesiaren eguna ospatzeko antolatutako errezitaldian hartutako irudia da atzekaldekoa: errezitaldiaren antolatzaile izan zen Vicente Moreno poeta abadiñarra olerkia irakurtzen eta Kuntur durangarra gitarra doinuekin berbak girtzen aritu ziren zapatu iluntzekoa da argazkia.

Errotako oholtzan euren poemak ozen irakurtzen aritu ziren Barbara Vera, Marian Alvarez eta Peru Magdalena poetak ere. Euren sorturiko lanak ezagutzera eta aditzera eman zituzten poesiaren egunean Durangaldeko poetek Abadiñoko Errotan.



Kepa Aginako

IKUS-ENTZUNEZKOAK > AURKEZPENA

'Ikusezazu' gunearen aurkezpen ekitaldia

Zapatuan egingo dute Ikusezazu elkartearen eta webgune berriaren jendaurreko aurkezpena

Martxoaren 28an, 13:00etan, Durangoko Barrenkaleko Iragi kafe-tabernan egingo dute internetean martxan ipini duten www.ikusezazu.com helbidearen aurkezpena. Azken helburua gai sozialen inguruko dokumentalako ekoiztu eta sarean ikusgai ipintzea dutela azaldu digute bultzatzaileek, eta bide horretan lehenengo pausua dela webgunea abiatzea.

Sareko hutsunea

Gune horretan biltzen dihardue orain euskarazko ikus-entzunezko materiala, norbere ordenagailura deskargatu beharrik barik ikusteko modua eskaintzen bisitari. Euskarazko dokumentalak, filmak eta telesailak batu dituzte talde lanean diharduten hirulagun hauek, eta elkarte bezala eratze-ko asmoa dutela nabarmendu digute. Pixkanaka, baliabideak lortzen dituzten heinean, sarean

dagoen euskarazko ikus-entzunezkoen hutsunea bete guraluketela diote gazteek. Proiektuan parte hartzeko interesa duten herri-tarrak, berriz, zapatuan Durangon izango den hitzordura gonbidatu dituzte, kolaboratzaile sarea zabaltzeko, euskarazko ikus-entzunezko sorkuntzak Interneten ikustarazteko jomugarekin. ■I.E.

Euskarazko film, dokumental eta telesailak ikusgai

'Ikusezazu' elkartearen eratzea da sortzaileen hurrengo jomuga

MUSIKA > KONTZERTUA



Kepa Aginako

Sarajevoko umeen aldeko kontzertu liriko Santa Anan

Juan Luis Anasagasti tenore bilbotarrak eta Jaime Butron piano-jotzaileak emanaldia eskaini zuten joan zen zapatuan Santa Ana elizan. Bosniako Sarajevon gerraren ondoren gurasoak galdu zituzten umeak artatzen dituen Bjelave umezurtzen etxearen aldeko kontzertu moduan aurkeztu zuten. Kontzertua entzutera bertaratuta-koek umezurtzegiaren lana diruz laguntzeko modua izan zuten.

Euskal Herriko abesti tradizionalak, zarzuelak, abesti italiarrak eta operako ariak eskaini zituen kontzertu lirikoan. *O sole mio*, *Funiculi Funicula* eta *Santa Lucia*, eta *El Caserio*, *La del Soto del parral* eta *La tabernera del puerto* zarzuelak, eta *Haurtxoa sehaskan*, *Boga Boga* eta *Maitetxu mia* lanak interpretatzen dituzte Euskal Herriko hainbat herritan kontzertuak eskaintzera eramane dituen emanaldian.

Bosniako umezurtzegiaren aldeko Maitasun elkartearen sortzaileetako bat da Anasagasti tenore bilbotarra. ■I.E.

BARRETERAPIA IKASTAROA



ZER DA BARREA? Erantzun fisiologiko bat? Ala barneko emozioak agerrarazten dituen jarduera psikologiko baten ondorioa? Barre egitea mesedegarria dela ziurra da; are gehiago, zenbait sendagileren ustez, gaixotasunak uxatzeko metodo merke eta eraginkorra da.

Beraz, osasuntsu eta alai bizi nahi baduzu, etorri ikastarora!

Nori zuzendua: osasuntsu eta alai bizi nahi duen edonori.

Noiz: martxoak 28, zapatua.

Ordutegia: 10:30-13:30 eta 15:00-18:00.

Prezioa: bazkideek 17€
bazkide ez direnek 22€

Izena emateko deitu elkartera: 946201918
edo idatzi Email bat: berbaro@berbaro.com

Laguntzaileak:



Etxe hutsak berpiztu zituen gazte olatua, aurrerantza



Judit Fernandez

Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek kanpaina barria abiatu dabe, mogimenduaren hastapenak oinarri hartuta. Izan be, orain gaztetxeek bizi daberen egoera nahiko onartua den arren, borroka asko egin behar izan eben hasierako urteetako gaztetxeetako kideek. Bihar daukie Elorriion kanpaina horren egun handia, AHTaren aurkako aldarrikapenez jantzirik.

Heskidek kanpaina barriaren harira eginiko abestiaren hasierak hauxe dino: "Baziren behin etxe huts mordo bat Durangaldeko herri eta auzoetan, ilusio barik bizi eta usteltzera kondenatuta...". Letra aldatu egiten da, ordea, kantak aurrera egin ahala, historia aldatu zen moduan. Elorrioko gazteak izan ziren lehenengoak eskualdean etxe huts baten atea botatzen, 80ko hamarkada amaieran. Handik hamar urtera, 90eko hamarkadaren azkenetan, Elorriion lantutako hazia eskualdeko hainbat herritan loratu zen, Durangaldeko gaztetxe mogimendua zabalduz eta sendotuz.

Okupazio horreen helburua gazteak antolatze eta aktibitateak aurrera eramateko topa-

Elorrioko gazteak izan ziren lehenengoak eskualdean etxe huts baten atea botatzen

lekuak sortzea zen, autogestioan oinarrituta. Gaur egun be, belaunaldiz belaunaldi, bizirik dagoen mogimendua sortu zen.

Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek adierazo dabenez, "domino efektu" lez baloratzen dabe sasoi haretan gertaturikoa, eta hortik dator abiatu barri daberen kanpainaren leloa: *Partida ez da bukatu*. Askok lortu arren, egiteko gehiago daukie, antza, oraindino.

21 urte bete barri ditu orain-tsu Elorrioko Gaztetxeak. 80ko hamarkadaren erdialdean herriko hainbat elkarterek kultur etxe amankomun eta autogestionatu baten proiektua garatu eben, gaztetxea bertan barneratuz. Ezziren akordiora iritsi Udalagaz, eta

1988ko urtarrilean Iturri jauregia okupatzea erabaki eben komisi-noan. Hasierako arazo edo gatazka gaintuz, bertan geratzea lortu eben, eta gaur egun be bertan dagoz. Dena dela, bidean izan da aldaketarik: Iturriko obrak, beste lokal batzuetara mogitzeak, funtzionamenduaren gaineko jarrera ezberdinak udal ordezkari-ekin... Azkenean, badirudi hasierako proposamen haretatik hur dagozela Iturri jauregikoak. Musika, tailer, berbaldi eta abarren kabi izan da urteotan guztiotan eraikina.

90eko hamarkada: jauzia

Gaztetxeen mogimendua jauzi nabarmena egin eben 90eko hamarkadaren azken tartean. Hain zuzen be, 1998-99 ikasturtean bata bestearren atzetik etorri ziren okupazioak, eta, ondorioz, gaztetxeen irekierak. Abadiñon 1998ko urriaren 28an sartu ziren gazteak Galindezen morroien etxera. Eraikin hori hutsik eta egoera txarrean zegoen, baina denpora luzez egindako obrei esker erabilgarri eta jentetsua izatera pasatu zen.

Abadiñoko okupaziotik ez zen aste bete pasatu Atxondokoa egin eben arte: tren geltoki zaharra hartu eben gazteek.

Urtea halan amaitu eta halan hasi zen eskualdean. 1999ko urtarrilaren 19an Zaldibarko gazteen txanda ailegatu zen; Katuetxe izan zen euren egoitza lau urtez, eraikinaren egoera eskasagaitik orain dagozenera lekualdatu arte. 99ko okupazio horren aurretik be, beste pare bat etxetan sartu ziren zaldibartarrak, tren geltoki zaharrean, adibidez.

"Domino efektuak" aurrera jarraitu eban, eta hurrengo fitxak Durango eta Berrizen mogitu zituen: otsailaren 12an Durangon eta 13an Berrizen. Durangarrek

Mogimendua jauzi nabarmena egin eban 90eko hamarkadan



Sapuetxe izenagaz bataiatu eben Montebideo kalean hutsik zegoen etxe blokea; berriztarrek Hiltzige ipini eutsien, eraikinaren lehengo funtzinoa gogoratuz.

Handik hilabete gixira, maiatzaren 21ean, Guardia Zibilak itziztako kuartelera sartu ziren Zornotzan. Bizitasun handia izan arren, ez eban asko iraun, hila-bete batzuen buruan desalojatu ebelako. Mañarian be antzeko egoera islatu zen: urtebete be ez zen zabalik egon Herriko Taberna zenaren oinordekoa. Iurretan, 99ko udazkena arte itxaron eben mogimendu horren hurrengo pieza eraikitzeko: plazako eraikin historikoa, Abadetxea, aukeratu eben gazteen etxe izateko. Abadetxearen herena okupatu eben. 2006ko urte amaieran erre egin zen etxe hori, eta oraindino konpondu barik dago.

Funtzionamendua sendotu eben gehienek, eta euren herrietan lekua egiten hasi ziren

Eskaintzen eutseenagaz ados ez zegoen gazteek dihardue gaztetxeetan

Geroagokoa da Otxandioko Gaztetxea, 2001eko ekainean jarri eben-eta martxan. Dena dela, 1997tik lanean ziharduen Gazte Asanbladak, eta esfortzu askoren ondoren gaur egungo gaztetxea eskuratu eben gazteek.

Era guztietako ekimenak

Urte hareetako loraldia eta gero, lanerako sasoia heldu zen. Gaztetxe guztietan egin ziren obrak; handiak eta txikiak. Funtzionamendua sendotu eben gehienek, eta euren herrietan lekua egiten hasi ziren. Horren adibide dira antolatutako ekimenak: Berrizko Aldapa musika lehiaketa, Durangoko Azoka Alternatiboa, Otxandioko Udaberri Jaia edo euskararen gaineko azterketak, Abadiñoko aisialdi eskaintza eta komunikazio proiektuak, Iurretako Gure Barik bertso eskola...

Eskaintzen eutseenagaz ados ez zegoen gazteak dagoz guztia-aren atzean, isilpeko mogimenduetatik ahotza izatera pasatutako proiektuak. Izurtzan antzeko egitasmoa daukie: Gaztelekua. Mallabia eta Garain be baleiteke noiz edo noiz saiakerak egotea.

“Amestutako guneetatik amesten daben herrietara” ailegatzeko lanean jarraituko dabe aurrerantzean Durangaldeko gazteek. ■ Markel Onaindia

Okupazioa, helburua lortzeko tresna

Herri bakotzeko prozesua ezbardina izan arren, bada elementu errepikakor bat: Udalgaz izandako hartu-emonen. Asanblada gehienak akordioak lortzeko saiakeretan ibili ziren, baina ez eban inork eskuratu hasieran. Horregaitik, etxe hutsen okupazioa erabili eben euren helburuak betetzeko tresna moduan (irudian, Atxondoko Gaztetxea okupatu barri). Denporagarenean, hainbat Udalek

onartu ditue gaztetxeak: Elorrion, Atxondon edo Otxandion, esaterako. Beste batzuetan, akordio puntualak egin izan ditue.

- Elorrio**, 1988ko urtarrilak 23
- Abadiño**, 1998ko urriak 28
- Atxondo**, 1998ko abenduak 4
- Zaldibar**, 1999ko urtarrilak 19
- Durango**, 1999ko otsailak 12
- Berriz**, 1999ko otsailak 13
- Zornotza**, 1999ko maiatzak 21
- Iurreta**, 1999ko azaroak 26
- Mañaria**, 1999an
- Otxandio**, 2001eko ekainak 3



I. Gorriti

Loraldiak ekarritako arantzak

Goian aipaturiko okupazioetaz gainera, beste hainbat izan ziren Zaldibarren edo Iurretan, esate baterako. Okupazio guztiek, baina, ez eben gazteek itxaroten eben moduan irten.

Kasu gehienetan polizia agertu izan jaken identifikatza, eta bat baino gehiago pasatu dira epaitegietatik. Iurretako adibidea izan leiteke argiena: Abadetxea erre zenetik hiru eraikin okupatu ditue herrian, eta hiruretatik

kanporatu ditue (irudian, gazteak txapa-lantegitik atera zitueeneko). Gainera, 30etik gora gazte deklaratu egon ziren, eta horreetako batzuk epaituak izan ziren; ez dira bi hile adin txikiko bat Bilbon epaitu ebela. Iurretako mogimenduen asanblada lez funtzionatzen dau orain, Zornotzakoak bezala.

Durangoan, aldiz, Sapuetxe hutsiko arriskua eduki dabe hasieratik, baina oraindino barruan dagoz.

Kanpaina barria ipini dabe martxan, beraz, Durangaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek, eta bihar izango dabe egun handia, Elorrion. Egundako jaialdia prestatu dabe, AHTaren kontrako izaera emonda. Izan be, proiektu horren aurka egiteko konpromisoa hartu eben eskualdeko asanbladek orain dela pare bat urte.

Goizean zehar, AHTaren inguruko informazio panelak egongo dira ikusgai Elorrioko kaleetan, eta 11:30ean eztabaidak hasiko ditue, gazte asanbladen zein koordinadorearen gainean. Burua elikatu eta gero, tripa betetzeko ordua: trikipoteoa lehenengo, eta 14:30ean bazkaria. Arratsaldean, herriko olinpiadak. Baina ekimen garrantzitsuenetarikoa gero ospatuko da: manifestazioa abiatuko da 18:30ean.

Gaua eta martxa batera etorriko dira. 20:00etan Rock Maratoiari hasiera emongo jako tabernetan eta Gaztetxean. Durangaldeko musikari gazteek ipiniko dabe dantzarako erritmoa. Informazio gehiago, www.partidaez-dabukatu.tk webgunean.

Gazte Eguna bihar, jai eta aldarrikapenez beteta

Egundako egitaraua prestatu dabe biharko Elorrion. Manifestazioa egingo dabe arratsaldean, eta ez da faltako bazkari eta kontzerturik



J. Fernandez

ERITZIA[>]

kolaborazioa

Gutunak

Durango 1936 kultur elkarteak eta Martxoaren 31ko ekitaldiak

Datorren martxoaren 31n durangarrok berriro ekarriko dugu geure gogora orain dela 72 urte jasandako bonbardaketa ikaragarria. Bere askatasunari gogor eustearren, faxistek suntsitu eta ikaratu nahi izan zuten gure herria.

Badira makina bat urte hainbat durangar Andra Mariko elizpean batzen garelako martxoaren 31 guztietan iluntzean, oroitzapen latz hori gogoratzeko eta berriro beste inon gerta ez dadin lau haizetara aldarrikatzeke. Ekitaldi hau urteetan antolatu dute Gerediaga, Berbaro eta Kriskitin elkarteek, eta eskerrak eta zorionak helarazi nahi dizkiegu horregatik eta ekitaldi honen inguruan antolatuta dituzten hitzaldiengatik.

Durango 1936 kultur elkarteak bat egiten du deialdi honekin, eta bertan parte hartzera deitzen die durangar guztiei. Garrantzi handikoa da guretzat belaunaldi berriei gertatu zena oroitzaraztea, bereziki berriro gerta ez dadin egunero-egunero egin dezagun lan.

Baina, ostera, bestelakoa da gure iritzia azkeneko bi edo hiru urtetan hilerrian eguerdian Durangoko Udalak antolatzen duen ekitaldiari buruz. Ez dugu bat egiten ekitaldi horrekin, eta gaitzetsi egiten dugu. Arrazoiak behin baino gehiagotan jakinarazi dizkiegu Udaleko arduradunei eta zinegotziei, ahoz eta idatziz.

Durango 1936 kultur elkarteak ez du ulertzen zelan burutu daitekeen, burutzen ari den legez, "Adiskidetzeta eta Bakea" bezala ekitaldi hori halako ezaugarriekin:

a) Durangoko Udalak, frankismoaren garaian, ikerketa oso zehatza egin zuen faxismoa ezartzeko euren bizitza eman zuten durangarrak nortzuk izan ziren jakiteko.

b) Durangoko Udalak, ia berrogei urtean zehar, faxismoa ezartzearen bizitza eman zuten durangarrak omendu ditu eskusiboki.

c) Durangoko Udalak ez du ikerketarik burutu Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde euren bizitza eman zuten durangarrak nortzuk izan ziren jakiteko.

d) Ikerketarik egin barik zerrenda bat osatu zuen hildako durangarrekin (bonbardaketetan hildakoak, faxismoa defendatzearen hildakoak eta askatasuna defendatzearen hildakoak batzuk), eta marmolezko plaka berean omentzen ditu denak.

e) Marmolezko plakako zerrendan euren bizitza Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde eskaini zuten hainbat durangarren izenak falta dira. Zer bitarteko jarri ditu Udalak berauek identifikatzeko? Ez du Udalak pentsatu iraintzat hartu daitekeela batzuen alde horrenbeste egitea -iraganean izan arren eta besteen alde hain gutxi?

f) Berradiskidetzeko eta bakea aldarrikatzeko ekintza kape-ra katoliko batean egiten da, eta ahaztu egiten du Udalak Errepublikaren eta Euzkadiko Gobernuaren alde borrokatuz hil ziren durangar asko ez zirela sinismen horretakoak; horrela, bide batez, katolizismoa ezarri egiten da "Adiskidetzeta eta Bakea" aldarrikatzeko.

g) "Adiskidetzeta eta Bakea" aldarrikatzeko egin nahi den ekintza faxistek euren aldeko hildakoak eskusiboki omentzeko erakitako kape-ra batean egiten da; hots, ahaztu egin nahi da tokiak sorrera faxista duela eta toki horretan beti omendu direla faxistak, eta luzaro beste batzuk baztertu direla.

h) Marmolezko plaka egin aurretik ez zaie senitartekoei jakinarazi, eta horrela jokabide jakin bat ezartzen da, benetako adiskidetzak izan beharko lukene metodoarekin bat ez datorrena.

Horregatik guztiagatik, Durango 1936 kultur elkarteak ez dio babesik erakutsiko hilerrian marmolezko plakaren inguruan egingo den ekitaldiari.

Zelan omendu daitezke batera askatasunaren alde borrokatzearen fusilatutakoak edo desagerrarazitakoak eta berauek erail zituzten faxistak, azken hauek askatasunaren borrokalarien lurperatze tokia bera ere jakitea ukatu dietenean senitartekoei? Zelan omendu daitezke toki horretan askatasunaren aldeko borrokalariak berrogeitaka urtean zehar leku berean faxismoa ezartzearen hildakoak era eskusiboan omendu direnean? Zelan omendu daitezke bonbardaketaren urtemugan bonbardaketan hildakoak eta bonbardaketa planifikatzen eta egiten lagundu zutenak?

Amaitzeko, urtero legez, Andra Mariko elizpean elkartuko gara martxoaren 31ko iluntzean.

Durango 1936 kultur elkarteak

Martxoaren 28an, gazteok Elorriora

Azken urteotan Durangaldeko gazteok bizi izan dugun egoera ez da batere samurra izan, gaztetxe nahiz etxe okupatuaren desalojoak, gure herri eta inguruak txikitzen dituzten proiektu txikitzaileak, atxiloketak, jazarpenak, uneoroko kriminalizazioa... Baina urteetako lanaren ondorioz, argi utzi dugu oztupo horiei guztiei aurre egiteko gai garelako eta lanean hasiak garelako.

Urte mordoia da eskualdean gazteok gizarte sistema kapitalista honi erronka bota eta gure fitxak mugitzen hasi ginenetik. Elorrioren gaztetxe bat okupatu zen. Une hartatik aurrera eskualdeko gainontzeko herrietan ere gazte mugimendua indartuz joan zen, eta domino fitxak bailira erori ziren eraikin hutsak, gu geunden kale gorritik bereizten zituzten ate itxiak.

Izugarria izan da ordutik hona gazteok gizarte eredu berri bat eraikitzearen alde egin dugun lana, gaztetxe nahiz gazte asanbladen eskutik, eta hauetako asanblada askok 10. urteurrenaren bete-tzen duten garai honetan, erronka berriak ditugu jo-puntuari. Urte dezente pasa da gazteriak bere partida hasi zuenetik, eta gaur egun oraindik, gu zapaldu asmoz, abiadura handian datozen txikitzaile horiek jakin beharko dute Durangaldetik ez direla pasako, oraindik ez dela partida bukatu!

Honegatik guztiagatik, Durangaldeko gazte independentistok bat egiten dugu larunbat honetan, martxoaren 28an, Durangaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Koordinadorak Elorrioren deitu duen gazte eguna eta bertan burutuko diren eztabaida, hitzaldi, mobilizazio eta ekitaldi guztiekin, eta horrekin batera eskualdeko gazteei larunbatean Elorriora hurreratzeko deia luzatzen diegu, guztiok batera AHTa gelditu eta bestelako gizarte bat eraiki dezagun.

Gazte Independentistak

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Marisa Barrena

Abortua delitu?

Gobernuak abortuari buruzko lege berria iragarri duenetik artega dabilta eliza katolikoko agintariak, urduri eskuineko alderdietakoak, larri atzerakoienak. Beldur dira, antza, eta gogor heldu diote abortuaren aurkako kanpainari; horra hor astegoen honetan egingo den manifestazioa.

Jakin badakigu herrialde garatu gehienetan libre dela abortua; hau da, legedian onartua dagoela. Gurean, ostera, zenbaitentzat delitu den bitartean beste askok klinika pribatuetan abortatzeko eskubide osoa dute. Hori bai, hainbat euroren truke. Betiko moduan, hipokresia nagusi. Esaterako, 2007. urtean, 112.000 abortu baino gehiago egin ei dira Espainiako Estatuan; jakina, haietatik %98 klinika pribatuetan.

"70eko hamarkadatik abortatzeko eskubidea aldarrikatzen dihardugu zenbaitzuk herri honetan"

Esanak esan, emakume gehiegik sufritzen dute oraindik kalbario gogorra gura ez duten haurdunaldiagatik. Hori dela-eta, egin berri den abortua legeztatzeke eta haurdunen eskubideak bermatzeko iragarpenak pozez eta itxaropenez bete gaitu, Zigor Kodetik abortua delitutzat kentzea eta abortatzea emakumearen eskubidea izatea ekarriko ei digu-eta lege berriak.

Egia esan, abortatzeko eskubidearen aldeko borroka ez da atzo goizekoa. Herri honetan, 70eko hamarkadaz geroztik abortu eskubidea aldarrikatzen dihardugu zenbaitzuk. Emakumeok geure gorputzaren jabe izan nahi dugu, eta geure bizitza kontrolatzeko eskubideari ez diogu uko egin gura. Nire aburuz, abortatzea ez da delitua: abortatzea eskubidea da.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko martxoaren 27a - 8. urtea - 324 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretzi Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onandia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilaria: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.



euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira



16. korrika æk
Tuturri-Garretz 09
Martxoaren 27an apirilaren 5era

æk

izan zaitez korrika laguntzailea

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA
LAGUNTZAILEA izatea.**

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,
eskaintza orria betez gero, txartelak
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org



anboto 
komunikabideak

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 27an eta 29an

DRAKULA

Ohi dauen ikuspuntu bereziagaz jatorri Portugalgo Companhia de Chapit6. 'Drakula' obra aurkeztuko dabe, Elorriko Arriola antzokian lehenengo eta Durango San Aguntin kulturgunean ondoren. Protagonista, baina, Drakula bisitatzeraino Transilbania-raino joango den haginlari ingelesa izango da, eta ez kondea bera. Atzerkia ulertzeko modu zabal, unibertsal eta dibertigarria eskainiko dau beste behin Chapit6k.

ANTZERKIA

BERRIZ

> 'Putzuak lehortzen' (Agerre Teatroa) martxoaren 27an, 22:00etan, Kultur Etxean.



DURANGO

> 'Drakula' (Companhia de Chapit6-Portugal), martxoaren 29an, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO

> 'Drakula' (Companhia de Chapit6-Portugal), martxoaren 27an, 22:00etan, Arriola antzokian.

ERMUA

> 'Ezker-eskuma' (Loli Astoreka eta Iñake Irastorza), martxoaren 27an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

> Umeendako antzerkia: 'Baserriko saltsa' (La Baldufa Teatre), martxoaren 28an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

> 'Cabaret de caricia y puntapié' (El Gato Negro), martxoaren 27an, 21:00etan, Zornotza aretoan.



BERBALDIA

DURANGO

> 'Planetas y vida en el universo' (Hizlaria: Agustin Sánchez Lavega; astrofisikaria, Fisika Aplikatuan katedraduna eta EHUko Zientzia Planetarioen Taldeko zuzendaria), martxoaren 28an, 19:30etan, San Agustin



kulturgunean. 2009a Astronomiaren Nazioarteko Urtea dela-eta, Izarra astronomia elkarteak eratu.

OTXANDIO

> 'Zergatik krisi ekonomikoa hau? krisi ekonomikoen kausak' (Joseba Garmendia, EHUko irakaslea eta Elko kolaboratzailea), martxoaren 27an, 19:00etan, Kultur Etxean. Kementsu elkarteak eta Gazte Asanbladak eratu.

BESTEAK

DURANGO

> Durangoko bonbardaketetan hildakoen alde loreak jartzea, martxoaren 29an, 12:00etan, Andra Mariko elizpean. Martxoak 31 dela-eta Udalak eratuako ekitaldia. Puzzle erraldoia egingo dabe hainbat ikaslek bonbardaketa oroitzeko, martxoaren 30ean, 10:00etan, Andra Mariko elizpean. Gerra zibilaren biktimei omenaldia, martxoaren 31n, 12:00etan, hilerrian. Autobus zerbitzua eskainiko dabe: 11:30ean, Komentu kalean, Jesuiten aurrean.

> Oroimen ekitaldia: lore eskaintza, Aureskua, oroimen irakurketa eta musika emanaldia, martxoaren 31n, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Martxoaren 31 dela-eta Gerediaga elkarteak, Kriskitin dantza taldeak eta Berbarok eratuako ekitaldia.

> Gazte Martxaren aurkezpena, martxoaren 27an, 21:00etan, bertsolariek girotuta. Aurretik, triki-poteoa, Intxaurren 19:00etan hasita. Gazte afaria, 22:00etan, Intxaurren; ondoren, Antton kantautorea.

> Txiki Parka, Landako erakustazokako 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Otsaileko eta martxoko asteburuetan egongo da zabalik, Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

> Korrika afaria + erromeria AIKO taldeagaz, martxoaren 27an, 21:30ean, Plateruenean. AEK-Abarrak eta Plateruenean eskuratu leiteke txartelak. Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Gorka Lazkano bertsolariek berotuko dabe afari giroa. Aurretik, 20:30ean, triki-poteoa Goienkalen hasita.

> 'Durango Ardoa Saltsan' II. Azoka Enogastromikoa, martxoaren 28an,



11:00etatik 21:00etara, Landako Gunean.

ELORRIO

> Kanpamenduaren muntaia, martxoaren 29an, 09:30ean, Kirol Etxean. Intxorta astialdi taldearen 20. urteurrena dela-eta. Erakusketa (argazkiak, eskulanak...), euren lokalean, 11:00etatik aurrera.

ERMUA

> Txikiteokide, martxoaren 27an, 20:00etan, Herga tabernan hasita. Berbalagunen eskutik.

> Kubako Iraultzaren 50. Urteurren Jaia, martxoaren 28an, 16:00etan hasita, Orbe Kardinalaren plazan. Komite Internazionalistek eratu.

ZALDIBAR

> Haur eta Gazteendako Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta bazkideen artean liburuak zotz egingo ditue, apirilaren 2an, Udal Liburutegian. Libururen bat eroan behar da maileguan parte hartzeko.

DEIAK

DURANGALDEA

> Aisialdirako eskaintza kaleratu dau Ikastolen Elkarteak. Horren aurrean begiraleak be behar ditue. Horretan jardun gura daben gazteek apirilaren 5a arte daukie izena emotea. Euskalduna eta aisialdian esperientzia daukana izatea beharrezkoa da. Baita ingelesa menperatzea be, ingeles udalekuen kasuan. Kontuan hartuko dira: aisialdiko begirale/zuzendari titulua edukitzea, sorosle, elikagaien menperatzaile eta abarren titulua izatea eta formazioa zein gaitasun pertsonalak (www.bieikastola.net / www.ikastola.net)



DURANGO

> Genero biolentziaren kontrako elkarretaraztea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

IURRETA

> Udaleku finkoa eta ibiltaria eratu ditu Kimuak aisialdi elkarteak. Uztalean izango dira, eta izena emoteko Ibarretxe kultur etxera jo leiteke (kimuak@kimuak-elkartea.com / www.kimuak-elkartea.com).

ERAKUSKETA

BERRIZ

> 'Emakumea Durangaldeko eta Lea-Artibaiko landa ingurunean'. Argazkiak. Kultur Etxean, martxoan.

DURANGO

> Durangoko bonbardaketa gogoratzen dauen argazki erakusketa, martxoaren 31n, 09:00etatik 21:00etara, Andra Mariko elizpean. Martxoak 31 dela-eta Udalak eratuako ekitaldia.

> 'Erraketariak'. Martxoaren 29a arte Arte eta Historia Museon.

> Teleskopioak, pisu planetarioak, maketa argitzaileak... martxoaren 27 eta 28an, San Agustin kulturgunean, 17:00etatik 20:00etara. Izarra astronomia elkarteak antolatuta 2009a Astronomiaren Nazioarteko Urtea izendatu dabela-eta.

> Hiart Zamakona. Margoak. Apirilaren 20a arte, Nualan Gunean.

> 'Acuarelas' (Jon Idigoras), martxoaren 29a bitartean, Ezkurdi erakustokian. Durangaldeko Artista Elkarteak eratu.

ERMUA

> 'Ernesto Che Guevara'. Argazkiak, liburuak, margoak... Martxoaren 28a arte, Lobiano kulturgunean. Komite Internazionalistek eratu.

IKASTAROAK

ABADIÑO

> Aitei zuzendutako afektibitate eta haurrendako masaje ikastaroa, apirilaren 30etik maiatzaren 28a arte. Izena emoteko, Txanporta eta Errotan (94 466 94 20 / berdintasun@abadiano.org)

DURANGO

> Aisa-etorkinendako euskara ikastaroak, apirilaren 21etik ekainaren 25era. Gitxienez 12 eta gehienez 18 laguneko taldea osatu behar da. Izena emoteko azken eguna apirilaren 17a da, matrikula Udaleko Euskara Sailean egin behar da (94 603 00 30 / www.durango-udala.net).

> Adinekoendako ikastaroak: 'Argazkigintza digitala', 'Osasun naturalaren tailerra: landare osasungarriak eta prestakinak', 'Landare eta baratzeak ekologikoki haztea', 'Aretoko dantzak', 'Lurrinterapia' eta 'Internet'. Izena

emoteko, Adinekoen Udal Egoitzan. (94 620 03 21 / 94 603 00 00 Luz. 1710).

> Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritzak. Apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina Asensioaren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eratuako eskolak, Kurutzia ikastolan. Izena emoteko eta informazio gehiagorako Artakuso ekodendara jo leiteke edo honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

IURRETA

> Ikima tailerrak: laburmetrai tailerra, martxoaren 27an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

OTXANDIO

> 'Kirola 3. adinean', martxoaren 31n, 10:00etan, Kultur Etxean. Berbaldia eta saio praktikoa, Pasealeku elkarteak eratu.

IKUS-ENTZUN

DURANGO

> 'Colorado erreka-Kanoi Handia' (Txus Ruiz de Erentxun), apirilaren 1ean, 20:00etan, Plateruena kafe antzokian. Korrika16ren baitan.

IURRETA

> 'Pirinioak bizikletaz (Iurreta Llança)', apirilaren 2an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Iurretako Gazte Asanbladak eratu.

IPUINAK

DURANGO

> Umeendako ipuin kontaketa: Amaia Arriaran, martxoaren 28an, Liburutegian: 3-5 urte bitartekoendako saioa, 17:00etan; sei urtetik gorakoendako saioa, 17:30ean.

> Helduendako ipuin kontaketa: Martha Escudero (Mexiko), martxoaren 28an, 20:00etan, Liburutegian.



IURRETA

> Helduendako ipuin kontaketa: 'Historias de impresión', Marina Sanfilippo (Roma) eta Cristina Mirinda (Galizia), martxoaren 27an, 20:00etan, Liburutegian.



ZALDIBAR

» **Umeendako ipuin kontaketa: Itziar Zubizarreta**, martxoaren 27an, Liburutegian, 17:30ean (2-5 urte) eta 18:00etan (5-9 urte).

LEHIAKETA

DURANGO

» **Kontakizun laburren lehiaketa.** + Dendak Durango eta lurretako merkatari elkarteak erata. Gehienez, hiru orrialde bete leitezke, euskaraz zein gazteleraz. Sail bi sortu ditue: 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Sariak: 10 eta 200 euro arteko erosketabaleak. Lanak apirilaren 24a bitartean hartuko ditue.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenetan, 18:30etik 20:30era, Liburutegian. Aurretik eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteca@iurreta.net).

MAGIA

DURANGO

» **Eriz magoa**, martxoaren 29an, 17:30ean, Plateruenean. Berbarok erata Korrika16ren baitan.

MUSIKA

ABADIÑO

» **Funkanema (funk doinuak)**, martxoaren 27an, 22:30ean, Gaztetxean. Korrika 16ren barruan.

DURANGO

» **Perkusino kontzertua**, martxoaren 27an, 19:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan. Blues eta rock bertsinok, ikasleen eskutik.

» **'Anitzak Hitzak'**, martxoaren 28an, 22:00etan, Plateruenean. Bertsoa, irudia, musika eta hip-hop batzen dituen ikuskizuna, Korrika16ren eskutik.



» **Kuntur Lee**, apirilaren 2an, 22:00etan, Atxo Fun Fun tabernan.

ELORRIO

» **Cobra + Vicepresidentes**, martxoaren 28an, 23:00etan, Gaztetxean

ERMUA

» **Irulitxa fanfarreagaz kalejira**, martxoaren 28an, 19:30ean, Korrika Kulturalaren barruan.

» **Alboka musika eskolako audizinoa**, martxoaren 31n, 19:30ean, Lobiano kulturunean. Apirilaren 1ean, 19:00etan.

GARAI

» **Altzaga (Erandio) + Berduntza (Zierbana) + Lirain Txiki (Gorliz) abesbatzak**, hilaren 28an, 20:00etan, San Migel Goiaingeruaren elizan.

ZALDIBAR

» **Pres.o.s. Rock Festibala: Sermonds + Tribute to RIP + Santos Dolidos + Komando TX**, martxoaren 27an, 23:00etan, Gaztetxean. Gaztetxeko Presoen Lagun Taldeak erata.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Umeendako zinema**, martxoaren 29an, 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Los niños de Rusia' (J. Camino)**, martxoaren 30ean, 19:00etan, San Agustín kulturunean. Martxoaren 31 dela-eta Gerediaga, Kriskitin eta Berbarok erata.

» **Film laburren zirkuitua**, apirilaren 2an, 20:00etan, Plateruenean. Berbarok eta Topaguneak erata.

» **Zinema Uztartuzen eskutik: 'Media Luna'**, martxoaren 27an, 19:30ean, San Agustinen.

ELORRIO

» **Hilean behin.dok: 'Cool and crazy'**, apirilaren 2an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **Film laburren zirkuitua**, apirilaren 2an, 20:00etan, Lobiano kulturunean. Euskal Birusa elkarteak antolatuta.



Apirilaren 1ean, 20:00etan

COLORADO ERREKA, TXUS RUIZ DE ERENTXUNEN ESKUTIK

Colorado erreka jarraituz, Kanoi Handian zehar egindako bidaia batzen dauen ikus-entzuzko aurkeztuko dau, apirilaren 1ean, Txus Ruiz de Erentxunen Plateruenean. Igazko udagoienean egin eben 17 egun iraun zituen espedizio hori. Erreka jaisteko 16 lagun batu ziren: euskaldunak, italiarrak, suitzarrak, espaiarrak, alemanak eta albaniarrak. Paraje haretan bidaiatzeko hitzordua eguaztenekoa, kafe antzokian.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Confesiones de una compradora compulsiva
Zuzendaria: P.J. Hogan
barikua 27: 19:00 / 22:00
zapateria 28: 19:30 / 22:30
domeka 29: 19:30 / 22:30
astelehena 30: 19:00 / 22:00
martitzena 31: 20:00



Umeendako zinema

Misión en Moçland

zapateria 28: 17:00
domeka 29: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

La Clase
Zuzendaria: Laurent Cantet
zapateria 28: 22:30
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00



Umeendako zinema

Mision en Moçland

domeka 29: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

El curioso caso de Benjamin Button
Zuzendaria: David Fincher
zapateria 28: 22:00
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00



Umeendako zinema

Más allá de los sueños

domeka 29: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 27
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Zapateria, 28
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / Balenciaga / Unamunzaga / De Diego (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
Domeka, 29
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 30
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Martitzena, 31
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
Eguaztena, 1
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Eguena, 2
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena.....606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustín94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

9 20° BARIKUA
Eguna zeru garbiagaz hasiko dogu. Goiza hotza izango da. Arratsaldetik aurrera aldaketak somatuko dira: hodeiak iristen hasiko dira eta haizeak iparraldetik joko dau. Goizaldera arte ez da bustitzen hasiko.

5 10° ZAPATUA
Aldaketa dator. Haize hotza sartuko da eta euria ekarriko deusku. Ipar-mendebaldeko haizea harrotu egingo da, hotz sentsazioa areagotuz. Elurrak goi eremuak zuritzen ikusteko aukera izango dogu.

4 10° DOMEKA
6 12° ASTELEHENA
8 16° MARTITZENA



PLATERUENA APIRILA

2009 EGITARAUA



www.plateruena.net

01 ASTEAZKENA

DOKUMENTALA
**COLORADO ERREKA,
GRAND CANYON**
20:00etan Sarrera doan

23 OSTEGUNA

MUSIKAKONTZERTUAK
VITAL REMAINS
+ ORDER OF ENNAD + SLUDGE
+ TRIBULATION
20:00etan Sarrera: 15-18€

02 OSTEGUNA

ZINEAEUSKARAZ
**FILM LABURREN
ZIURKUITOA**
20:00etan Sarrera doan

24 OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
RUSSIAN RED
22:00etan Sarrera: 18 + gastuak 20€

03 OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
AKATZ
22:00etan Sarrera: 7€

26 IGANDEA

AISIALDIAEUSKARAZ
OLGETAN
17:30etan Sarrera doan

04 LARUNBATA

DANTZAIKUSKIZUNA
**AURREZ
AURRE**
20:30etan Sarrera doan

02 MAIATZA
IGANDEA

MUSIKAKONTZERTUAK
ENTOMBED (Swe)
+ RHINO + COBRA
22:00etan Sarrera: 18 - 20€

05 IGANDEA

MUSIKAKONTZERTUAK
VOLBEAT (Dk)
+ Pog Mo Thon
19:30etan Sarrera: 15-19€

08 MAIATZA
OSTIRALA

MUSIKAKONTZERTUAK
TRASH & BURN FEST
DARKEST HOUR + BLEEDING TROUGH +
BENEATH THE MASSACRE + CARNIFEX + WAR
FROM A HARLOTS MOUTH + ARSONIST GET
ALL THE GIRLS + SUCCESS WILL WRITE
APOCALYPSE ACROSS THE SKY
22:00etan Sarrera: 25-28€

17 OSTIRALA

GAUELEKTRONIKOA
DJ DAVID MEDINA (ZUL)
+ PLATERUENA RESIDENTS DJs:
Alain Medina/Ruben Kostas/Iker Undersound
23:00etan Sarrera: 3€ (2€ Flyer-arekin)

18 LARUNBATA

DANTZALDIHILTARIA
**AIKO
ERROMERIA**
19:00etan Sarrera doan

**III. PLATERUENA
SKATE TXAPELIKETA**

maiatzak 1
PARKATU STREET
PLATERUENEAN

maiatzak 2
TXOTX MINIRAMP
ERAKUSTAZOKAN

MAIATZEAN 07 II. DURANGO HOTS JAM SESSION 09 AIKO ERROMERIA 15 DARKNESS BY OATH 16 BERTAN BERA + FISION BOYZ
DATOZENAK 21 GOD IS AN ASTRONAUT 22 LOR 23 FUNDACION TONY MANERO 29 THE CHERRY BOPPERS 30 EXTREME NOISE TERROR



KIROLAK >



Dimarock izenarekin ezagutzen dugun nazioarteko eskalada jaialdi ospetsua Durangoko Landako erakustazokan egingo dute aurten, Dur&Go izenpean, irailaren 7tik 13ra (astelehenetik domekara). Antolatzaileek urrats berri bat eman nahi izan dute urterik urtera hazten ari den jaialdian. 2010. urtean ere Durangon antolatuko dute, euren helburua Durango kokaleku finko bihurtzea da-eta.

Orain arte legez, munduko eskalatzaile onenak lehiatuko diren Nazioarteko Climbing Masterraz gainera, jaialdiak eskaladaren festa erraldoi izan nahi du.

Dur&Gok bi gune izango ditu. Erakustazokaren ondoko plazan (Ibaizabal auzunearen aldetik) txapelketa garatuko den rokodromoa jarriko dute: 16 metro garai, 12 zabal eta 120

Dimarock Durangon

Dur&Go izenarekin Landako Gunean antolatuko dute irailaren 7tik 13ra

metro karratukoa. Jaialdiko azpiegitura osoak 8.000 metro karratu hartuko ditu.

Ekimen parte-hartzaileak

Landako erakustazokan Boulder jarriko dute. Han modu biko ikuskizunak egongo dira. Batetik, Block&Go izenekoa, aurreko aldietan ikusleen artean oso harrera ona izan duena. Eliteko zortzi eskalatzailek ibilbide bana diseinatuko dute; ondoren bata bestearen bideak igotzen saiatuko dira. Eskalatzaile bakoitzak 600 euroko apustua egingo du.

Bestetik, Herri Block izenarekin, boulderra herritarrei zabalduko diete. Aurretik diseinatutako erronkak gaintzen saiatzeko aukera izango du kuriositatea duenak. Horrez gainera, gazte-txoentzako gunea atonduko dute, monitore eta eskalada-guneekin.

Landako erakustazokan mendi eta eskalada materialen gaineko standak ere jarriko dituzte.

Oraindik goiz da parte-hartzaileen zerrenda zehazteko, baina Patxi Usobiaga etorriko da, eta baita, okerrik ezean, Chris Shrama amerikarra eta Tomas Mrazek txekiarra ere. Nazioarteko txapelketaz gainera, Euskadiko Eskalada Txapelketa ere jokatuko da Durangon.

Aurten, lehenengoz, sarrera ordaindu beharko da; autofinantziazioaren bidean sakontzea ere badute helburu. Hala ere, jakinarazi dutenez, prezio herrikoiak izango dira.

Azkenik, aurreratu dutenez, lau haizetara eta benetako harroketan, eskalada klasikoaren inguruko topagune bat prestatzen dabilta. Ekimen hori ez dago zehaztuta oraindik. ■ J.D.

24 Iurretako Hiri Froga domekan

Aurten ere, goi mailako korrikalariak batuiko ditu XXIX. Hiri Frogak (Reyes Estebez, Marta Dominguez...). Herritarrentzako lasterketa parte-hartzaileak ere izango dira.

25 Sasikoak ezin die eutsi puntuei

Aurten sarritan gertatu zaio azken minutuan edo azken segundoan gola jasotzea, puntu baliotsuak galduz. Hemendik aurrera ez dago horrelako hutsetarako tarterik.

Beste behin, eliteko atletak datoz lurretako Hiri Frogara

Marta Dominguez, Cristina Petite, Reyes Estebez, Alberto Garcia... dira domekan lurretan lehiatuko diren batzuk



Urtero-urtero goi mailako atletak etortzen dira lurretako Hiri Frogara. Judit Fernandez

Bidezabal atletismo klubak antolatuta, lurretako Hiri Frogak XXIX. aldia beteko du etzi, eta, urtero legez, goi mailako izenak batuko ditu. Gizonetan, Reyes Estébez, Alberto Garcia eta José Redolat etorriko dira, besteak beste. Emakumeetan, parte-hartzea baieztatu dute Marta Dominguez, Zulema Fuentes, Cristina Petite eta Isabel Macíasek.

10:00etatik 11:50era, adin tarteka banatutako lasterketak korrituko dira. 12:00etan betaranoena hasiko da, eta segituan emakumeen eta gizonen herri-lasterketa. 12:45ean eta 13:10ean ekingo diote lehiari

federatuek; gizonen lehenengo, emakumeek ondoren. Bost kilometroko ibilbidea osatuko dute.

Ibilbidea

Federatuek bost itzuli emango dizkiote zirkuituari (980 metro). Askondo kalean dago irteera puntua. Maspe kalean joan-etorria egin, berdin Montoiatik Durangorantz beste ehun bat metroan, eta herrigunera sartuko dira. Zubiaurretik sartu, Bixente Kapanagatik irten eta Askondon amaituko dute zirkuitua.

Lasterketan parte hartu nahi duenak www.bidezabal.com weborrian eman dezake izena.

Bihar, gainera, Hiri Frogaren harira hitzaldi interesgarria dago Ibarretxe kultur etxean. Marta Dominguez, Cristina Petite, Isabel Macías eta Iraia Garciak emakumeen atletismoa izango dute hizpide. Hitzaldia 19:00etan hasiko da. ■ J.D.

Bihar emakumeen atletismoari buruzko hitzaldia izango dute Ibarretxe kultur etxean



Lejarretak irabazi du Cascanteko bigarren proba

Caja Rural Torneoko bigarren proba lñaki Lejarretak irabazi du; irabazi dio, esan beharko genuke: lasterketa biak Carlos Colomaren eta berriztarren arteko buruz burukoak izan dira, eta lehenengoan errioxarra nagusitu bazen ere, Cascanteko bigarrenean Orbea Racing Teameko berriztarrek jaso zituen besoak. Etzi Saint Raphaelen proban izango da, Frantzian.

Gotzon Gomez
• Errugbi entrenatzailea



Sei Nazioen Torneoa

Irlandak Sei Nazioen Torneoa eta Grand Slama irabazi barri dituen honetan, txapelketa ospetsu horren historia laburbiltzea otu jat. Gaur egun sei talde badira be, hasieran Ingalaterraren eta Eskoziaren arteko partidua bakarrik jokatzeko; 1871. urtekoa izan zen lehenengoa.

1882. urtean Gales eta Irlanda sartzeagaz batera, IV. Nazioen Txapelketa izena hartu eban. Sistema erraza zen, denek denek aurka jokatzeko ebentatu bakarra, eta tartekatutako ebentatuak edo kanpokoak izatea. 1910. urtean irletako taldeei Frantzia gehitu jaken, eta aro barriari ekin jaken V. Nazioen Torneoa izenagaz.

Errugbi arloan, antzinako txapelketa izateaz gainera, torneo horrek badaukaz berezitasun batzuk ingelesez eta eskoziarren artean, eta hasierako partidua ha gogoratzeko Kalkuta Kup delakoa jokatzeko dabe. Britainia Handiko hiru taldeek (Ingalaterra, Eskozia eta Gales) Koroa Hirukoitza delakoa jokatzeko dabe, eta derrigorra da beste bi taldeei irabaztea trofeoa lortzeko.

Baina, dudarik barik, talde guztiek amesten daben trofeoa Grand Slama da, horrek ematen deuselako ospea eta loria, gainerako talde guztiei irabazita lortzen dena. Partidu guztietan galtaile denari zurezko koilara egokitzen jaken. (Dinoenez, Cambridgeko Unibertsitatean dau jatorria sari horrek, eta ikasle txarrek jasotzen eben euren lan kaskarragaitik).

2000. urteaz geroztik Italia be onartu eben, eta hortik jatorriko Sei Nazioen Torneoa izena.

Adituarentxokoa

Ikuskizunak ez zion giro bikainari lagundu



Binakako lehen txapela jantzi du Berasaluzek. Kepa Aginako

Asier Berasaluze eta Xabier Urberuaga dira aurtengo bigarren mailako binakako txapelduak. Emoziorik bako partiduan, 22-6 gailendu zitzaizkien Ibai Zabala eta Aratz Mendizabali.

Harmailetako berotasunik ez zen kantxan sumatu. Launako berdinketa arte, bete-beteko partidua jokatu zutela zirudien, baina handik aurrera urdi-

nak aise nagusitu ziren. Berasaluzek min egin zuen sakearekin, eta Urberuagak bizkarra erakutsi zion Zabalari. Berrizko atzelaria txapelketan erakutsi duen mailatik oso behera aritu zen. Mendizabal ondo ibili zen defentsan eta kamuts erasoan.

Horrela, Berasaluze IX.ak binakako lehenengo txapela irabazi du profesionaletan. ■ J.D.



Azkenengo minutuan puntu baliotsu asko galdu ditu aurten Sasikoak

Orioko-k segundo biren faltan berdindu zien partidua, eta Anclak lidertza kendu die

Presioa bidaide desatsegina da kontrolpean mantendu ezik. Gorputza uzkuritu egiten du, eta burua nahastu. Sasikoa Ohorezko A Mailarako borroka bizian dabil Ancla Donsapor eta Kencirekin. Lau punturen barruan daude. Hiru hautagai eta sari bakarra. Astebururo derrigor irabazi beharrak, beharizan horrek, denei eragiten die, eta Sasikoari ere bai. Beste behin –aurtengo denboraldian hirugarren aldia da– partiduko azken hatsean berdindu zien aurkariak, eskuetan zituzten puntu baliotsu bi kenduz.

Nogales eta Kencitaldeek ere azken unean berdindu zieten

A.Olivares: "Presio gehiegi jarri diogu geure buruari"



Oraindik, Elorrioko Buskantzaren kontrako derbia ere jokatu behar dute. Judit Fernandez

Aurten gehiegitan errepikatu den kontua da. Cerámicas Nogalesen kontra 3-6 irabazten zihozen, eta minutu eta erdian berdindu zieten. Etxeko partiduetan ere pairatu dute gaitz hori; Kencik segundo biren faltan sartu zien binakoa. Irabazi ere egin dute partiduren bat azken txanpan, baina, oro har, probetxua barik kaltea eragin die.

Sei jardunaldi bakarrik falta dira liga amaitzeko: "Azken asteetan presio gehiegi jarri diogu geure buruari. Hor goian derrigor egon behar dugula uste eta lotuegi jokatu dugu", dio Aitor Olivares jokalaria. Etxe Astraburukoren kontra jokatu dute. Teorian irabazteko partidua da. Anclak, berriz, Laskorainen

Ancla Dosanporrek Landako kirolegia bisitatuko du azken-aurreko jardunaldian

zelaian jokatu du. Tolosarrak sailkapeneko behealdean daude, baina Olivaresek ezustekoa emateko kapaz direla uste du: "Guk 8-5 galdu genuen han, eta oso talde ona iruditu zitzaigun". Saillkapenak hain estu jarraitzen badu, ligako azken aurreko partidua, Sasikoa eta Anclaren artekoa, itzela izango da. ■ J.D.

Eskolarteko xakelariak Durangon lehiatuko dira

Bizkaiko Eskolarteko Xake Txapelketako laugarren eta azken jardunaldia jokatu da, etzi, Landako kirolegiko lokaletan. Guztira, benjamin, kimu, haur eta kadete mailetako 200 xakelari inguru batuko dira. 8:30ean hasi eta 14:30ean amaituko da jardunaldia.

Kategoria bakoitzeko onenak –lau jardunaldiak kontuan hartuta punturik gehien batu

dituztenak– azken fasera pasatuko dira. Fase horretako lehenengo biak Euskadiko Txapelketarako sailkatuko dira. Durangon izango dira Zaldi Baltza eta Larrasoloeta xake taldeetako gaztetxoak ere. Larrasoloeta taldeko Jon Lagosek hiru jardunalditik bitan irabazi egin du, eta saillkatzeko aukera handiak dituzte. ■ J.D.

Durango Judo Klubeko gaztetxoak goi mailan

Badago bai ezpala. Joan zen zapatuan Durango Judo Klubak Bizkaiko Minikata Txapelketan parte hartu zuen Bilbon, eta bikote bik urrea lortu zuten kategoria banatan. 13 urtez azpiko mailan –hanken teknika modalitatean– Aitor Vivanco eta Julen Otxoa onenak izan ziren. 11 urtez azpikoen artean, Nerea Huertak eta Nahia Oleak urrea eraman zuten txapelketa bikaina

osatuta. Azpimarratzeko modukoa da Amaia Bañosek eta Markel Zugazartazak eskuratu zuten zilarra ere. Egun berean, arratsaldean, klubeko hiru neskatok Eibarko nazioarteko torneoan parte hartu zuten, eta domina banarekin itzuli ziren. Eider Vivankok urrea, Maria Bazanek zilarra eta Amaia Muruak brontzea lortu zuten, nork bere mailan.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Amorebieta
 Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
OHOREZKO MAILA
Berriz - Balmaseda
 Domekan, 11:30ean, Berrizburun
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Iurretako - Errigotti
 Zapatuan, 17:00etan, Larrako-Zelain
BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
Abadiño - Zorrontzako
 Zapatuan, 17:00etan, Astolan
Elorrio - Artibal B
 Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden
Extremeño - Gernika
 Domekan, 18:00etan, Tabiran

ARETO-FUTBOLA
OHOREZKO B MAILA
Sasikoa - Astraburuko
 Domekan, 12:00etan, Landako kirolegian
LEHEN ERREGIONALA
Presion Break - Egartsuak
 Zapatuan, 17:00etan, Berrizburu kirolegian
BIGARREN ERREGIONALA
Abadiño - Lagun - Mazusberri
 Zapatuan, 17:00etan, Berrizko kirolegian
Mallabia Bastida - Presion Break
 Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kirolegian
BIGARREN ERREGIONALA
Kurutzlaga B - Sumi Muguru
 Zapatuan, 19:00etan, Landako kirolegian
Dantxari - Mendibeltz
 Zapatuan, 19:30ean, Iurretako Institutuan

SASKIBALOA
LEHEN MAILA
JAITSIERA FASEA (gizonak)
Tabirako Baqué - Bidegintza
 Zapatuan, 17:00etan, Landako kirolegian
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Anbotopeko - Marrazoak
 Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
Tabirako Baqué - La Salle
 Zapatuan, 19:00etan, Landako kirolegian
BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)
Julza-Zaldúa - Escolapios
 Barikuan, 20:00etan, Zaldibarko kirolegian

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

pasqualli

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Mingain urdinaren kontrako txertoa emoteko kanpaina hasi dabe

Gaixotasuna garraiatzen dauen eltxoa agertu baino lehenago ipini dabe martxan egitasmoa

Aste honetan behiak txertatzeko fasea hasi dabe; ardiarena, barriz, apirilean hasiko dabe

Abiatu barri daben kanpaina honegaz, ekainerako azienda osoa txertoa jasota egotea lortu gura dabe

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak aste honetan jarri dau martxan ardiaren katarro sukarra edo mingain urdinaren gaxaren aurkako txerto kanpaina. Abere Osasuneko Atal-lak abeltzaintza sektoreagaz beragaz adostutako plangintzaren arabera, Bizkaia osoko azienda osoa txertatuta egongo da ekain amaierarako. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioan nahikoa txerto egonez gero, bi hilabeteren buruan Bizkaian erroldatuta dagozen 72.000 ardiak eta 52.000 behiak 1 eta 8 serotipoko txertoa jasota egon leitezke. Horrek onurak ekarriko ditu gaxaren aurkako borrokan, eta merkatu mugimenduetan be bai.

Neguko hilabeteetan kortan egon dira abereak, eta orain mendi edo larreetara joateko ordua ailegatu jake. Gaixotasuna

garraiatzen dauen eltxoa (*Culicoides Imicola*) agertu baino lehenago ipini dabe martxan egitasmoa, eltxoari aurrea hartu eta infekzioak ekidin ahal izateko. Hain zuzen be, ekain bueltan itxaroten dabe eltxoa hemen agertu eta bere jardunean hastea.

Ardiarena, geroago

Aste honetan behiak txertatzeko fasea hasi dabe, osasun kanpainagaz batera. Ardiarena, aldiz, apur bat geroago hasiko dabe; apirilean, hain zuzen be. Gainera, generikoki garatuko da.

Horren bitartez, aurten jaiotako arkume emeak sartuko dira kanpainan; izan be, jaiotako eta hiru hilabetez aurrera txertatu leitezke ardiok. Geroago hasi arren, helburua berbera da: ekainean amaitzea.

Aurtengo abere kanpainak 300.000 euroko inbertsinoa ekarriko dauela kalkulatu dabe, eta esan leiteke dena prest dagoela. Aipatzekoa da, adibidez, ustiatetik albatariak erabiltzen dituen zaintza epidemiologikorako sistema martxan mantenduko dabela, oraindino lasai egon arren arlo honetako sektore guztiak. Prebentzio eta jarraipenaren gehigarri lez, Eusko Jaurlaritzan Nekazaritza sailburuordetza buru dauen mahaia osatu dabe, Jaurlaritzako eta hiru foru aldundietako nekazaritza sailek osatuta.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak tuberkulosia, bruzelosia, leukosia eta perineumonia erazteko osasun kanpainak be diseinatu ditu. Igazko emaitzak oso onak izan ziren, eta aurten be halakoak izate itxaroten dabe.



IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK
Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeein...

ERRENTAN EMAN
Durango. Alde
zaharreko etxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...



SALDU
Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU
Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko
(ingeles
beste irakasg
batzuk)...



BEREZIAK
Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera.
09:30
aurrera...

OPARI
Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...





ANB (tartea) + iragarkia 7789 (1,2€ + BEZ)
Tel.: 94 621 79 02

IRAGARKIAK

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Eguazten arratsaldeko 18:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko ditugu. Mezuak jaso eta hurrengo alean publikatuko dira.

Zure iragarkia argitaratzeko:

Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ

Edozein motako iragarkiak kontratatzeke honako telefonora deitu: 94 621 79 02

IRAGARKI PARTIKULARRAK

Ordaindutako moduloak fondo beltzagaz eta letra zuriz argitaratuko dira.

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka, gauze edo asteburuetan.

Tel.: 650 102 636

Andra euskalduna etxeko lanak egin eta haurrak eskolara eramateko prest. Tel.: 627 468 002

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxe bakarra salgai Marietan (Araba). 200 m2 ditu. 5 logela, egongela beheko suarekin, 3 komun eta sukaldia. Garajea 2 kotxerendako eta lorategia be badauka. Tel.: 628 450 965 edo 616 969 920

Durango. Pisua salgai. Goitik behera berriztatutako etxebizitza, estreinatze-ko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m2, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukaldia amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra urrutiko agintearekin. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Elorrio. 67 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Kanpora ematen du.

Sotoarekin. Tel.: 94 682 02 26 eta 620 441 249

ERRENTAN EMAN

Otxandio. Pisu berria alokagai, trastelekua barne. 3 logela, komun bi, egongela, balkoia eta sukaldia guztiz hornitua. Tel.: 655 726 760

Durango. Logela bat dut alokagai. Tel.: 659 749 084

Apartamentua alokagai Conilen. 3 logela, terraza, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Durango. Pisua alokagai erdialdean. Prezio onean. Tel.: 653 011 166

Apartamentua alokagai Torreveijan. Urbanizazio pribatua, gune berdea eta igerilekuekin. Hiru logela, komuna, sukaldia eta solariuma. Tel.: 615 779 622

Zaldibar. Pisua alokagai, guztiz egokituta: 3 logela, sukaldia, komuna eta egongela. Eguzkitsua, herri erdian. Tel.: 615 746 231

ERRENTAN HARTU

Bikotea gara eta errentan hartzeko etxe bila gabiltza Durangon edo

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Berbaro elkarteak

langile-saltzailea behar du, Durangoko merkataritza eta elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko. Harremanetarako: berbaro@berbaro.com

Berbaro elkarteak

tituludun begirale eta koordinatzaileak behar ditu udalekuetarako. Eman izena apirilaren 24a baino lehen. Harremanetarako: gazteak@berbaro.com

LANA

ESKAERAK

Emakumea behar da, goizetan umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 618 896 591

Berriz. Esperientziadun estetizista behar da lan egiteko. Curriculumak aurkeztu. Tel.: 94 682 68 83

Pertsona bat behar da umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Derrigorra da kotxea izatea. Tel.: 660 723 602

Ikastolen elkarteak begiraleak behar ditu 2009ko aisialdi programarako. Beharrezkoa da euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelesa menperatzea (ingeleseko udalekuen kasuan). Apirilaren 5a baino lehen eman behar da izena. Informazioa: www.bieikastola.net

Durango. Aseguru merkataria behar da bezeroak lortu eta jarraipena egiteko. Derrigorra da 25-45 adin tartekoa izatea, Durangaldean bizitzea, eta diplomatura eta esperientzia izatea. Erreferentzia: 74. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Automozio elektrizitateko teknikaria behar da. Derrigorra da 10 urteko esperientzia izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 886. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Topografo laguntzailea behar da. Kanpoan eta gabinetean lan egiteko. Derrigorra da heziketa izatea eta inguruan bizitzea. Erreferentzia: 889. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Mallabia. Merkataritzako agentea behar da bezeroei bisitak egiteko. Derrigorra da 25-40 adin tartekoa izatea, Durangaldean bizitzea eta gida-baimena. Erreferentzia: 1.300. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar du.

Durango. Gazte arloko teknikari laguntzailea behar da, denbora libreko ekintzak dinamizatzeko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta kanpamenduen antolakuntza esperientzia izatea. Erreferentzia: 1.485. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar du.

Durango. Euskara normalkuntza teknikaria behar da gaztelaniatik euskarara itzulpenak egiteko. Derrigorra da euskara menperatzea, Durangaldean bizitzea eta Euskal Filologian edo Itzulpen gintzan lizentziaduna izatea. Erreferentzia: 1.487. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar du.

Zornotza. Aseguru teknikaria behar da. 25 eta 45 urte bitarteko pertsona bilatzen da. Esperientzia baloratuko da. Erreferentzia: 11.707. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar du.

ESKAITZAK

Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago, orduka. Tel.: 627 468 002

Neska euskalduna, kotxearekin, edozein lan mota egiteko prest. Goizeko 9:00etatik aurrera astelehena eta asteazkena izan ezik. Arratsaldetan 7:30etatik aurrera. Tel.: 692 709 384

Lan Harremanetan diplomadun neska administrari, harreragile eta idazkari moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketan lan egiteko ere. Egun osoan lan egitea nahi nuke. Tel.: 617 084 252 (Eliana)

Eraikuntza edo soldaduran lan egiteko prest nago, baita zaintzan ere. Tel.: 686 054 186 (Jose)

Interina moduan edo kanpotik etorrita lan egin nahiko nuke. Erreferentziak. Tel.: 636 852 059

Neska arduratsua etxeko lanetarako eta nagusien zein umeen zaintzarako prest dago. Tel.: 669 609 829

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko eta etxeko garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Tel.: 645 718 030

INMOBILIARIARIK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK


- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalek bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baseria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalek bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarrek etxea lursailarekin salgai.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldia jantzia, egongela- jangela, 4 logela, 2 komun, 2 balkoi.
- Montebideo: Halla, sukaldia-jantokia, logela bakarra, komuna eta balkoia. Etxe jantzia, igogailua. Eraikuntza barria.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Etxe jantzia, igogailuarekin eta berogailua hiriko gasarekin.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldia, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Ambrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Montebideo: Halla, egongela- jangela, sukaldia, 5 logela, 3 komun. Terraza eta ganbara. 150 m2.
- Arriluzeta: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldia, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3 logela, 2 komun. 2 Garaje. Etxe guztiz jantzia.
- Abadiño - Matiena: Halla, sukaldia, egongela, 2 logela, komuna eta ganbara.
- Abadiño: Berriztatzeko. 3 solairuko etxea.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldia, logela eta komuna.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

		Baigorriko herria	Irungo auzoa	Ontzat hartua
		* Irudiko planeta	Aurkezpen egilea	
		Toka, zuen		
		Moroa		
Xahutzera behartua	Errekorra			
Jamaikako	Marola lantzen du			
Aire			Kontsonantea	
Gorde			Tonto bihurtu	
Arrantza tresna		Gauerokoa		
Egonarri		Xafla		
Aluminioaren ikurra	Zakar			Zuen, haiei
Nafarroako udalerrria	Bi ken bat			
		Interjekzioa		
		Ingeleseza		
Irakinaldi				
Ahalmen				

SUDOKU >

1

		4	6					
				2	5			6
6	7					3	5	
8	2			1				
1	6					8		3
			9			6		7
	4	1				2		9
3			5	4				
				8	4			

2

		7	4			9	1	
		6	3			2		
3	4			9				
5	9	2				8	7	
					3		6	
6	2	8			5		4	
4	7	5						
							4	
6		8	9	5				

2	6	1	8	4	9	5	7	3
9	8	3	5	7	1	4	2	6
4	7	5	3	2	6	8	1	9
6	2	8	1	7	3	4	5	9
3	4	2	9	5	6	7	8	1
8	7	2	6	4	1	5	3	9
5	9	2	6	8	3	4	7	1
6	2	8	1	7	3	4	5	9
4	7	5	3	2	6	8	1	9
3	4	2	9	5	6	7	8	1

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Santa Ana 6, 48200 durango



Endikak marxoaren 31n hiru urte egingo ditu. Zorionak!, Oroitz, Josefa birramama, Begoña amama, ama eta Berrizko familiaren partez.



Gure printzesak 8 urte egin zituen marxoaren 23an. Etxeko guztiok asko maite zaitugulako, zorionik beroenak. Aupa **Udane!**



Zorionak **Hegoitxu!** Mutil haundi bat zara jada! Mosu handi bat, osaba Fernan eta izeko Olatzen partez. Jarraitu hain alai beti.



Ireder rek marxoaren 31n 10 urte egingo ditu. Mosu handi bat, familiaren partez; bereziki, Peru, June, Ane eta Kimetzen partez. Neska jatorra zara; ez aldatu.



Aimarrek 7 urte egin zituen marxoaren 26an. Zorionak eta mosu handi bat, etxekoen eta Durangokoen partez. Segitu hain alai eta zintzoa izaten.



Ander Gaztelu-Urrutiak datorren eguaztenean, apirilaren 1ean, urtetxo bat egingo dau. Zorionak eta mosu handi bat, etxeko denon partez.



Zorionak amama **Deori** joan zen domekako urtebetetzearengatik. Mosu handi-handi bat, Aiala, June, Euri eta Anderren partez.



Bego Arrindak joan zen eguaztenean, marxoaren 25ean, urteak bete zituen. Zorionak amama eta patxo handi-handi bat, Oierren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz

batera telefono zenbakia emotea. Zorionak **Enaitz Aretxabaleta!** Aste honetan zotz egin dogun tarta zeuri egokitu jatzu.

HOROSKOPOA >



Aries

marxoak 21 - apirilak 20

Ondo dago eguraldi ona dagoenean mendi-buelta egitea, baina hurrengoan hobeto prestatuta joan.



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Normala da krisiari errespetua izatea; kaleratzeak eguneroko ogi direla esan leiteke. "Carpe diem" bai, baina etorkizunari be begitu.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Denok daukaguz gure konplexu txikiak, baina ez itzi zurei hainbeste baldintzatzen. Maite dozuna be hurrago sentituko dozu.



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Zu bai, zu, bizkorra. Besteak espabilatzen hasi orduko, zu beti zagoz pausu bat aurrerago. Lo ez zaitue harrapatuko, behintzat.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Zenbat gauza galdu dozuz dagoeneko? Giltzak, aterkia... Despistatua izatea gauza bat da, baina hainbesterako...



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Gaur irribarrea eta bihar negarra. Gaur alaitasuna eta bihar tristura. Zuen arteko hartu-emona orekatu beharko zeunkie.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Ez pentsatu maite dozun hori beti alboan izango dozunik. Jaitsi egizu apur bat gangarra, eta lan egizu gura dozuna lortzeko.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Zineman ateratako malako horrek ez dira normalak. Bereizten al dozu fikzinoa errealitatetik? Aste honetan ez zaituz joan pelikulak ikustera.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Eguzkia irten delako emozionatu eta hor ibili zara kalean ia arroparik barik. Katarroa harrapatzea arraroa dela iruditzen jatzu?



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Kalean aurrerantza zoazela, beti zeurean zoaz, eta sarritan ez dozu jentea agurtu be egiten. Desatsegina zarela pentsatuko dabe.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Katalanei zuhurrak direla esaten deuse, baina zu be ez zara horretan atzean geratzen! Atera egizu dirua ohe azpitik.



Piscis

otsailak 19 - marxoak 20

Heldu da udabarria. Sasoi ona da honakoa ilunetik argira pasatzeko. Loreen antzera, indarberitu zaitze.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera. Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Zaldibarko Batzokia

Arangoiti 5, Zaldibar
Tel.: 94 682 78 14

Eguneko menua. Karta.
Gosariak. Razioak eta kazuelitak.
Ospakizunak.
Astelehenetik igandera zabalik.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko menua 11€

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02



Joxe Garaizabal
Irakaslea

"Lesino bat eta gero txapelketa irabazteak indarra emon deusku"

Torremolinosen jokaturako Europako Dantza Txapelketan podiumera igon dira Isidro eta Begotxu

Orain bost urte, Begotxu Lauzirikak eta Isidro Juantorenak dantza bikotea osatzea erabaki ebenean munduko sailkapenean 23. lekura helduko zirela esan baleutsee, ez eben sinestu be egingo. Bikotea dira dantza-ko pistan eta handik kanpora be bai. Saltsa eritimoak trebezia lantzen ditueela erakutsiz, Europako Txapelketan hirugarren postua eskuratu dabe.

Lesino baten ondoren halako txapelketa bat irabaztea motibazio handia izango da.

B.L. Bai. Belauneko lesino baten ondorioz urtarrilera arte ezin izan dot entrenamenturik egin. Txapelketa hau oso denpora gitxian prestatu dogu.

Zer maiztasunegaz entrenatzen dozue?

I.J. Egutero ordu pare bat ateratzen saiatzen gara. Asteburuetan, kanpoan txapelketaren bat ez badaukagu, entrenatzeko aprobeztatzen dogu.

Noiztik egiten dozue elkarregaz dantzan?

I.J. Begotxuren ikaslea izan nintzen. Orain bost urte txapelketetan parte hartzea erabaki genduen, eta bikote legez izan dogun garapena oso azkarra izan da.

Unibertsitateko titulua be badaukazue.

B.L. Puerto Ricon saltsako irakasle izateko unibertsitateko titulua atera dogun bakarrak gara estatu mailan. 2005ean lehenengo promozinokoak izan ginen. Oso interesgarria izan zen: denpora gitxian asko ikasi genduen.

Maiatzean nazioarteko txapelketa garrantzitsuetako batean parte hartzeko asmoa daukazue.

I.J. Blackpooleko (Ingalaterra) Winter Gardenen maiatzaren azken astean parte hartuko dogu. 2.000 bikotegaz lehiatuko gara. Dantza maratoi itzela izatena da.

Lanbidez dantza irakaslea eta medikua izanda, txapelketetara bidaiatzea ez da erraza izango.

B.L. Gehienetan asteburuetan joaten garenez, denpora ateratzen dogu. Aurrera eta atzera ibiltzen gara txapelketaz txapelketa.

Telebistan dantzaren inguruko programak emititzeak mundu hori ezagutzera emoten lagundu dau?

I.J. Jentea dantzaren mundura gerturatzeko balio dauela deritzot. "Beste batzuek egiten badabe nik zergatik ez?" pentsatu leike ikus-entzule batek baino gehiagok. B.L. Dantza gauza serioa dela ezagutzera emoteko balio dabe, eta baita kirola eta artea uztartzen dituela erakusteko be.

Gaztetxoan artean zaletasuna bultzatzeko be balio leikie.

B.L. Gaztetxoan kasuan, gurasoek dantza ez dabe jotzen seme-alabentzat zaletasun interesgarritzat. Saio horrekin gurasoek dantzagazko daukien ikuspuntua aldatzeko balio dau. Umeen alderdi fisikoa, musikala, artistikoa eta hartu-emo-netarakoa garatzeko ezaugarri aproposak batzen ditu dantzak. Beste leku batzuetan umeen artean dagoen zaletasuna ikusten dogu txapelketetara kanpora joaten garenean.

Dantza ikastaroetan oraindino gehienak emakumeak dira.

B.L. Bai, baina apurka-apurka joera hori aldatzen doa. Gizonak be geroago eta gehiago etortzen dira.

Zenbat bikote elkartuz arie dantzaren inguruan?

Katalunian dantzako bikoteen %90 bikote sentimentala be badira.



Begotxu Lauzirika Isidro Juantorena

Begotxuk 37 urte daukaz eta Isidrok 45

Isidro donostiarra da eta Begotxu iurretarra

Krisiak berean darrai

Badira bederatzi hilabete krisi zaratak entzuten direla; eguneroko berba da. Hasiaran finantziarioa izan zen: bankuak eta inbertitzaileak. Gero ekonomikoa: enpresa txiki eta ertainak eta langile arruntak. Baina, ni krisi sakonago batean gagozelakoan nago, eta aspaldikoa da, gainera; kultura krisian, balore krisian eta jokabide krisian gagoz.

Agintea diruaren edo dirudunen eskuetan dago. Eta aldi bakotxean inbertsino guneak aldatzen ditue. Tresna elektronikoa, energia iturriak, eraikuntza, garraioak (AHT), eta, laster, ura. Ura be ez da guztion eskubide izango. Argi ibili! Laster gasolioa bera baino garestiagoa izango da-eta.

Diruak ez dauka kolorerik ez aberrik; dirua dirua da. Eta diruak, diru gehiago deitzen dau. Joan den asteko manifestazio baten dei paperak hau zinon:

"Zure diruak banketxeak salbatzen ditu. Nork salbatzen zaitu zu?"

Eta egia borobila da, zertarako emoten deutsee denon dirua bankuei eurek sortu badabe krisia, alimaleko diru pilen jabe direnean eta krisi-toren irabaziak iragartzen ditueenean.

Edo kotxe egile eta saltzaileeri, behar zen kotxe kopuruaren bikotxa egin dabenean.

Krisiaren konponbidea gastatzea dela dinoe, baina gastatzeko eduki egin behar da, eta nork dauka? Geroago eta diru gehiago dago gitxiagoren eskuetan.

Aspaldikoa da abesti hau: "Urte barri barri, daukanak ez daukanari, nik ez daukat eta niri, niri emoten ez deustana, ...".

**UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PRESTI**

ATE IREKIAK OÑATIN

APIRILAK 4 - larunbata 10:00-13:00

OÑATI - ARETO NAGUSIA

Tel.: 943 71 80 09 // cqarate@eteo.mondragon.edu

etorriko zarela jakinarazi!

PREST

ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES

ONDOKO TITULAZIO HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:

- > Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua
- > Nazioarteko Kudeaketako Idazkaritza Gradua
- > Lidergo Ekintzalea eta Berrikuntza Gradua